


DROGETEN

Gozamena
suaren
inguruan

ITTURRI

Ermuko eta Mallabiko aldizkaria
2023ko EKAINA · 323 zenbakia





Mar.Isk.Al dejai

Uztailaren 15ean
(larunbata)
19:30ean

Komentukua
kalean

Antolatzailea

Babeslea



Anari

Uztailaren 23an
(igandea)
20:30ean

Santiago elizako
arkupeatan

Antolatzailea

Babeslea



Gaia: Erronda kantua.

Konzejura etorri naiz

(Entzuteko: www.alboka.es)

Konzejura etorri naiz
papel baten bila,
pipa eta makila,
begira jarri eta
hau dek alper pila!



ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.eus

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran, Estibalitz
González, Nahia Ruiz Albizuri
eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA

ETA MAKETAZIOA:

Dorleta Vidal.

AZALEKO ARGAZKIA:

Jone Redondo.

LAGUNTZAILEAK:

Ermua-Mallabiko Oinarrizko Lanbide
Heziketako Udal Institutua, Antonio
Hernández 'Cuco', Aitzol Lejardi,
Patxi López eta Valentin Mugarza, .

ARGAZKIAK:

Imanol Alvarez, Artarrai Mendi
Taldea, Pilar Bilbao, Emilio Carral,
Piedi Eizagirre, Ermua-Mallabiko
Oinarrizko Lanbide Heziketako Udal
Institutua, Maddi Goikoetxea, Esti-
balitz González, Valentin Mugarza,
Mari Carmen Mugika, Nacho del Río,
Nahia Ruiz Albizuri, Mireia Suarez eta
Dorleta Vidal.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Maren Aguirre, Irune Basagoiti eta
Piedi Eizagirre.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

*Drogeteniturrik ez du bere gain
hartzten aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



ERMUKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Mireia Suarez · Kolonbia

“Neu daukat egoera larrienei aurre egiteko kudeatzen doguzan egitasmuen ardura”

Kolonbiako Barranquilla hirian 2000tik dago Mireia Suarez, 55 urteko ermuarra. Erlijiosa misiolari lez joan zen bertara eta bere jardunak heziketa eta gazteen pastoraltza du oinarri.

Testua **ESTIBALITZ GONZÁLEZ**

Noiztik eta non bizi zara Kolonbian?

2000eko urrian heldu nintzan Kolonbiara eta harrezkero Barranquillan bizi naz, Kolonbiako iparraldeko Departamentu Atlantikoan.

Zerk eraman zintuen bertara?

Kongregazioan Espainia eta Hego Amerikarako arduraduna zanak Kolonbiara etorteko eskatu eustan, heziketan, eta batez be gazte pastoraltzan jarduteko.

Zerk harritu zintuen gehien bat?

Hasieratik, jendearen abegi, harrera eta poztasunak harritu ninduan. Urteak joan, urteak etorri, harritu egiten nabe, gaur egun be, gauza gehienetan.

Nolakoa da kolonbiar jendea orokorrean?

Barranquilla, ‘la Arenosa’ deitzen dabena, kostaldean dago eta bertako jendea abegitsua eta atsegina da. Eta abegitsua da giroa be, eguraldi beroa egiten dau eta urte osoan. “O te aclimatas o te aclimueres” esaten dabe hemen, umorez, hori be euren bereizgarria da eta: umorea, naturaltasuna, zintzotasuna... Oso lagunkoiak dira eta ez dabe asko behar alkartzeko eta ospatzeko, edozein atxakia da ona. Familia be estimuan dabe, baina gurean baino adiera zabalagoan hartuta.

Ze baldintzetan bizi dira zure ingurukoek?

Kolonbian gizartea mailatan banatzen da: 1. maila baxuena da eta 6.a, altuena, eta zenbaki horreek dana islatzen dabe: ze ordaindu behar dozun zerbitzuengai-

SAN ANTONIO
OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63

JULEN

JULEN IZARRA
GARRAIOAK

Bidegain kalea 1
48240 BERRIZ
636 958 339

**AMAIA
HARATEGIA**

Bertoko Okelak

Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

IKASTOLA
1968tik Ermua
euskalduntzen

Barranquilla,
Kolonbia



tik edo ze maila dagokizun gizartean. Hasiera batean, bizilekuak sailkatze sistema zana, pertsonak sailkatze erabilten da eta maila batekoa ala bestekoa izateak gizarte-leku bereizketa dakar, eta ia ezinezko egiten dau maila bateko edo besteko gizataldeak nahastatzea.

Ze ardura dituzu, ze lan egiten duzu bertan?

Gaur egun, ikastetxe biren ardura dot zuzendari eta administratzaile lez, eta gazte pastoraltza be sustatzen dot. Egoera larrienei aurre egiteko kudeatzen doguzan egitasmoen ardura be neuk daukat. Gure ordenaren karisma heziketarena da eta horregaitik ikastetxe bi doguz: bata, 6. estratu edo mailan; bestea, 1. estratu edo mailan, non gatazka armatuak eragindako desplazatuak bizi diran. Egia esan, hauxe da gure egitasmo 'kutuna', baina goi mailako ikastetxe barik ezin dogu aurrera eroan eta, horregaitik, 30 urte honeetan errealidade bi honen arteko zubiak eraikitzen saiatu gara, eta ikastetxe bateko eta besteko ume eta gazteak heziketa, gogoeta eta fede eremuetan alkatzea lortu dogu. Eta hortik bialtzen dozuen laguntza bideratzea be bada nire egitekoa. Jendea gose da inguru pobreenetan eta gose hori asetzea eta desagerrarazteko bideak urratzea da gure egitekoa. Horregaitik nire esker ona, hona eta beste hainbat lekutara laguntza bialtzeko ekimenak (tonbola, Agate Deunaren eguneko diru-batzea...) garatzen dabezan guztiei edo zuzenean laguntza emoten deustienei.

Zer egiten duzu aisialdian?

Ezin esan aisialdi askorik daukadanik, baina gustuko dot zinea, musika eta dantza egitea.

Joan-etorri egiten duzu, baina berriro itzultzen zara



bertara. Zerk lotzen zaitu horra?

Batez be, gurasoak zaintzera joaten naz. Nire bizitza eta misinoa Barranquillan dagoz.

Hona zatozenezan, zer egiteko deseatzan egoten zara?

Senide eta lagunekin egoteak eta gure lurraz gozatzek egiten nau zorioneko. Sustraietara bueltatzea esperientzia ederra izaten da.

Horra bueltatzen zarenean, zer da gehien estimatzen duzuna?

Jendearen berotasuna. Topikoa emoten dau, baina egia da! Irekiak dira, kartsuak, garaiezinak, baikorrak, pozik eta esker onez hartzen dabe kanpokoak, behar-bada, iraganeko historia atzean utzi eta benetako Kolonbia agertzeko gogoak dabelako. Bizimodua nahiko 'erlaxatua' da, eurek esaten daben lez, "cójala suave"... Jarrera hori kutsakorra da eta presaka ibiltzea ez da ohikoena... Karibea berezia da, eta bere nortasun eta indarraz jabetzeko bertara joatea da onena.

Epe luzera hor ikusten duzu zure burua?

Orain, bai; aurrerago, Jainkoak esango dau.

“Terapia genikoak Hugosenda lezake”

LAURA DIAZ ETA ANDRES MADUEÑO · Entzefalopatia Epileptikoa eta Garapenaren Entzefalopatia gaixotasuna duen ume baten gurasoak



2019ko irailaren 20an jaso zuten Laurak eta Andrések bere seme Hugoren diagnostikoa: Entzefalopatia Epileptikoa eta Garapenaren Entzefalopatia, 38.000 biztanletik bati erasaten dion gaixotasun arraro berria. Ordutik, bide neketsua egin dute, baina aurten Estatuko beste familia batzuekin elkartu dira eta ikerketarako dirua biltzen ari dira. Honen harira, txakur erakusketa burutuko da Ermuan uztailaren 15ean.

Testua **DORLETA VIDAL**

Nola konturatu zineten Hugok gaixotasunen bat zuela?

Laura: Hezkuntza Berezia, Hizkuntza eta Entzumenaren irakaslea naiz, eta gainera ez nintzen lehenerdia, beraz, Hugok lau hilabete zituenean konturatu nintzen bere garapen maila ez zela arrunta. Sei hilabeterekin egiten den azterketa medikoan esan ziguten dena ondo zihoala, baina hurrengo azterketara joan ginerako argi geneukan arazoren bat zuela. Donostiako Neuropediatriara bidali gintuzten, Itxaso Martí doktoarekin: profesional eta pertsona bikaina. Hamaika proba egin zizkioten umeari eta elektroentzefalograman epilepsia agertu zen; hala ere, diagnostikoak ia urtebete tardatu zuen.

Zein da Hugoren diagnostikoa?

Entzefalopatia Epileptikoa eta Garapenaren Entzefalopatia du, SLC6A1 genearen mutazioaren ondorioz. Gaixotasun neurologikoa da, eta haren sintomak dira: epilepsia, ibilkera-nahasmendua (dardarak eta ataxia), hipotonia (muskuluen tonu baxua), atzeratasun kognitiboa, espektro autistaren nahasmenduaren ezaugarriak, hizkuntzarik eza, portaera-alterazioak, agresibitate arazoak, arreta-defizita eta hiperaktibitatearen nahasmendua, besteak beste. Kasu batzuetan, beste nahasmendu psikiatriko batzuk ere egon daitezke (eskizofrenia, bipolaritatea...). Dena den, epilepsia da gaixotasun honen sintomarik ohikoena eta, neurri handi batean, hark markatzen du umeak izango duen bizi-kalitatea: zenbat eta krisi gehiago,





Andrés eta Laura euren bi seme nagusiekin, Izan (9 urte) eta Hugo (5 urte).

orduan eta bizi-kalitate eskasagoa.

Zein da SLC6A1 genearen zeregina?

Gene honek GAT-1 deitutako proteina sortzen du, eta proteina horren eginbeharra da GABA izeneko sustantzia garraiatzea. GABA neurotransmisore bat da, eta bere funtzioa da nerbio-sistema zentrala inhibitzea eta burmuineko nerbio-bulkada orekatzea. Mutazio baten eraginez, Hugoren SLC6A1 geneak ez du GAT-1 sustantzia behar bezala sortzen, eta horren ondorioz umearen burmuinean etengabeko jarduera elektrikoa dago maila neuronalean. Horrek ondorio oso larriak ditu bere garapen neuronalean, eta errusiar mendi batean bizi da egunez zein gaeuz.

Gaixotasun ezaguna da?

Ez. Diagnostikoa eman ziguten garaian gaixotasun oso

“Hugoren burmuinean etengabeko jarduera elektrikoa dago maila neuronalean”

arraroa zen: mundu guztian 34 kasu zeuden, horietako bat ere ez Estatuan, noski. Izan ere, oso gaixotasun berria da, 2015ean aurkitu baitzen, eta ordura arte, *epilepsia mioclónica-astática*arekin edo Dooseren sindromearekin lotzen zen. Giza genomaren ikerketari esker genei buruzko informazio gehiago dugu gaur egun, tartean SLC6A1 genearen inguruan.

Aipatu duzue garai hartan gaixotasun oso arraroa zela. Jada ez du izendapen hori jasotzen?

Gaixotasun honen sintomatologia zabaltzen hasi zenean, ordura arte gaizki diagnostikatutako pertsona askok diagnostiko zuzena jaso zuten. Kasuak ugaritu ziren, eta gaur egun gaixotasun oso arraroa izan beharrean, gaixotasun arraroa da bakarrik.

Mundu guztian hain kasu gutxi egoteak bakardade sentimendua sortu zizuen?

Jakina! Medikuek ez zeukaten gaixotasun honen inguruko informazio askorik, eta aldi berean ezin genuen beste inorekin ezer partekatu! Zorionez, Facebook-eko orri bat topatu genuen: SLC6A1 Connect. Amber Freed izeneko estatubatuar batek sortutako fundazio



Hugo Madueño SLC6A1 Spain kamiseta jantzita.

baten orria da, eta idatzi egin genion. Hark Mallorco familia batekin jarri gintuen harremanetan, alaba gaixorik duena.

Haien berri izatea lasaigarria izan zen?

Andrés: Alde batetik bai, baina familia horren egoera oso ezberdina zen. Umearen gaixotasun-gradua nahiko arina da, eta gainera diagnostikoaren fase oso ezberdin batean geunden. Gero pandemia etorri zen, eta hilabete horiek etxe barruan izugarriak izan ziren,

“Gaiari zabalkundea eman nahi diogu, eta ezkutuan geneukana askatzea oso lasaigarria izan da”

“Hugok terapia-saio ugari ditu. Ez daukagu ez dirurik ezta denborarik ere ezer gehiago egiteko”

“Gizarte Segurantzak Ravicti botika finantzatzea nahi dugu. Epilepsia ia guztiz desagertuko litzateke”

jasangaitzak. Konfinamendua bukatu zenean, oraindik ez geneukan barneratuta diagnostikoa. Niretzat oso mingarria zen, eta ez nengoen prest jendartean zabaltzeko. Ez nuen etxetik irten nahi, dolu bat igaro behar izan genuen. Orain, aldiz, beste fase batean gaude. Gaiari zabalkundea eman nahi diogu, eta ezkutuan geneukana askatzea benetan lasaigarria izan da.

Nolakoa da zuen egunerokotasuna?

L.: Hugok erabateko mendekotasuna dauka, eta ni ia egun guztia igarotzen dut berarekin. Eskolara doan arren, ia egunero dauka medikuren bat, edo terapia-saio ezberdinak. Etxetik kanpo lan egitea ezinezkoa litzateke.

Hugo medikatu egiten da?

Bai. Diagnostikoa eman zigutenetik hasi zen epilepsiaren kontrako botika bat hartzen; gaur egun hiru hartzen ditu. Horrez gain, beste bi botika hartzen ditu, eta ez dugu ikusten batere hobetzen denik. Ez du txarrera egiten, baina ez da hobetzen. Horrez gain arre-ta goiztiarra egiten du, baita fisioterapia, logopedia, estimulazio kognitiboa, zaldi-terapia... Ez daukagu ez dirurik ezta denborarik ere ezer gehiago egiteko.

Bere gaixotasunak sendabiderik dauka?

Ematen du izan dezakeela, bai. Aurtengo martxoan Madrilgo mediku-genetikari batek lan talde bat sortu zuen Hugoren gaixotasunaren aldaera aztertzeko. Gerora jakin genuen ikerketa horretan Ravicti botika erabili zutela laborategian, eta horri esker epilepsia ia-ia desagertu daiteke. AEBetan ere antzeko ikerketa egin zuten, eta urtebete daramate sendagai hori umetan probatzen, eta emaitzak oso onak dira. Ravictik medikamentuen agentzien oniritzia du, eta dagoeneko beste gaixotasun batzuentzat erabiltzen da. Hori dela-eta, Gizarte Segurantzak Ravictia finantzatzea nahi dugu. Munduko laugarren botikarik garestiena da, eta tratamenduak 2.000 eta 3.000 euro bitarteko prezioa du hilean. Badakigu erosahalmen handiko familiak botika hori erabiltzen ari direla. Pentsa: lehen aipa-



Elkarteak diru kontu bat zabaldu du ikerketarako dirua jasotzeko:
ES37 2103 7089 0300 3002 5043.

tutako Amber Freed AEBetik Espainiara etortzen da Ravictia erostera. Txinatik, Japoniatik edota Australiatik ere etortzen dira.

Talde bat sortu duzue elkarrekin lan egiteko, ezta?

Bai, helburu hori eta beste batzuk lortzeko elkarte bat sortu genuen otsailean: SLC6A1 Spain, eta laster ipiniko dugu martxan gure webgunea. Estatuan sakabanututako zazpi familia gaude bertan (Malaga, Oviedo, Madril, Mallorca, Bartzelona, Sevilla eta Ermua), eta

“Herriak sekulako babesa eman digu, eta bai gure elkartekoak eta bai gu ere harrituta gaude”

gauzak egiteko gogo handia daukagu. Europan dauden beste lau elkarteekin harremanetan gaude, eta baita Danimarkan dagoen ikerketa taldearekin ere. Talde hau terapia genikoa ikertzen ari da, eta hari esker gaitasuna sortzen duten geneak aldatzeko aukera egon daiteke, kromosometatik gene okerrak kenduz gene zuzenak ipintzeko. Modu honetan hereditarioak diren gaitzak edo mutazio batek eragindakoak tratatu litezke. Albiste bikaina da, baina ikertzea oso garestia da.

Eremuan hainbat ekintza eta kanpaina jarri dituzue martxan dirua biltzeko, ezta?

Bai, alde batetik elkarteko kamisetak jarri genituen salgai, eta sinestezina da zer nolako erantzuna jaso dugun. Herriak sekulako babesa eman digu. Gainera, duela aste batzuk ere, Hugoren eskolako beste guraso batzuk, Óscar Benítez "Goiko"k eta Verónica Pavok, proposatu ziguten txakur erakusketa bat egitea, eta aurrera egingo dugu. Esan ziguten eskolako beste aita bat (Jesús "Toretto") epaile zela txakurren edertasun txapelketetan eta berak ere parte hartuko duela. Beraz, Santixauetako egitarauaren barruan txakurren edertasun erakusketa egingo da uztailearen 15ean, larunbata, Arizmendi pilotalekuan, 10:00etatik 21:00etara. Egun eta leku berean, paella solidarioa egingo da SLC6A1 Spain elkartearen alde.

Ekinean zumba saio solidarioa egin du Kiroldegiak ere San Pelaion...

Bai, egia esan harrituta gaude, bai elkarteko beste ki-deak eta bai gu ere. Erakunde publikoen zein norbanakoek jarrera ikaragarria izan da, eta oso eskertuta gaude, benetan.



Unzaga Plaza
Hortz Klinika - Clínica Dental

Kirurgia-inplanteak
Odontopediatria
Ortodontzia
Estetika
...eta batez ere prebentzioa


Dra. Maite Orozco Ventura

Zure dentista gertu

Unzaga plaza 5, 4º
Eibar

943 70 23 85
660 03 33 29

clinica@unzagadental.eus
www.unzagadental.eus



“Zailena ez da isilik ez geratzea, baizik eta zure diskurtsoa bertsoan sartzea”

ARAITZ KATARAIN MUGARZA · Bertsolaria



Araitz Katarain (Mallabia, 2004) Antropologiako ikasketak eta bertsolaritza uztartzen ditu. Miren Amurizarekin trebatu zen Berrizko Bertso Eskolan oso gaztetik, eta gaur egun Hernaniko Bertso Eskola feministan aritzen da. Udaberrian Bizkaiko Txapelketako final laurdenetarako sailkatu da, eta uztailaren 16an Bertsolari Gazteen Saioan parte hartuko du, Ermuko Martxoaren 8a plazan, 22:30ean.

Testua **DORLETA VIDAL**

Aste gutxi barru Ermuan abestuko duzu...

Bai, eta lotsa pixka bat ematen dit, nire familia etorriko delako eta oso bertsozaleak direlako...

Horrelakoetan urduri jarri ohi zara?

Lehen bai, batez ere saioa hasi aurretik: ez nuen ia jaten! Hasitakoan, etxean prestatutako agurra kantatu, eta lasaitzen nintzen. Gaur egun, saioaren arabera, lasaiago edo urduriago egoten naiz, baina lehen ofizioa egin eta gero trankildu egiten naiz.

Zer sortu nahi duzu entzulearengan zure bertsoekin?

Saioaren eta entzule motaren arabera izaten da. Bertsolariok saio ezberdinetara egokitzen gara: bertso afari batera eta Señora Sariketako final batera ez doa publiko berdina, eta bertsoak egokitu behar ditugu. Dena den, orokorrean, jendeak bertsoekin gozatzea

da helburua, gaiak serioak izan daitezkeen arren.

Zeintzuk gai izaten dituzu gustukoen?

Gai anitzei buruz kantatzen dugu, eta niri gai sinpleak gustatzen zaizkit, egoera arruntak irudikatzen dituztenak. Izan ere, umorezko gaiak arriskutsuak dira, gaiak berak barrea eragiten badu, kantatzean ere grazia egitea oso zaila delako.

Aktualitateko gaiak ere sarritan agertzen dira...

Bai, eta garrantzitsua da egunean egotea: ez bakarrik gaia edo albistea ezagutzea, baizik eta horren inguruan zure diskurtsoa prestatzea. Izan ere, zure iritzia plazaratu nahi baduzu, aurretik prestatu behar duzu.

Gai-jartzailea ezagutzea abantaila izan daiteke?

Bai, bakoitzak gai mota batzuetarako joera izaten du, eta horiek ezagutzeak lagundu ahal ditu.

ileapaindegia
Silvia
peluqueria

Astearretik ostiralera
9:00-12:00 15:00-19:00
Larunbata 8:30-13:00

943 170474

6888 19336

solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33



"Beste bertsolariekin konplizitatea baduzu, gusturago zaude eta elkarri lagundu diezaiokezue"

Eta bikoteka aritzean, garrantzitsua da beste bertso-laria ezagutzea?

Gai batzuetan bai. Umorezko gaietan, beste pertsona ez baduzu ezagutzen, ez dakizulako nondik joko duen, edo zuk esandakoak grazia egingo dion. Konplizitatea badago, gusturago zaude, elkarri lagundu diezaiokezue,

bideak erraztu... Txapelketa batean ez dira horrelakoak gertatzen, jakina.

Eszenatoki gainean zer esan jakin gabe geratzeak arduratzen zaitu?

Saioa hasi aurretik pentsatzen dut ez dakidala bertso-tan egiten, eta ez dudala ondo egingo. Behin hasita, baina, zer esan ez jakitea zaila da, berez bertsoa osatzea ez delako zaila: agian poto egin dezakezu edo gai baten aurrean inprobisatu, zure benetako iritzia eman gabe... Zailena ez da isilik ez geratzea, baizik eta zure diskurtsoa bertsoan sartzea, bertsoak mamia izatea. Horrek bereizten du bertso on bat.

AMALUR
FISIOTERAPIA

6 8 8 6 1 9 8 9 6
zeharkale 12 bajo
4 8 2 6 0 ERMUA

IRENE ESQUÉ col 1666 EGOITZ FORMOSO col 1675

ANTIXIKETAN AISIALDIA

• Diputazio kalea, 8 - 10, behea.

PSIKOMOTRIZITATEA LOGOPEDIA
PSIKOTERAPIA LUDOTEKA
ERREFORTZU ESKOLARRA

943 576 124 10.00 - 13.30
747 453 607 15.30 - 19.30

Antxixiketan info@antxixiketan.com

Zer nolako garrantzia du ahotsak berak?

Ahotsa polita bada eta tonuan kantatzen bada atseginagoa da, batez ere bertsolaritzari buruz asko ez dakitenentzat. Maila altuagoan dabiltzanek asko lantzen dute atal hau, eta baita arnasa nola hartu bertso erdian arnastetuka ez hasteko. Landu beharreko zerbait da, baina nik ez dut lantzen.

Nola prestatzen zara saioetarako eta txapelketetarako?

Donostian ikasten dut, eta astean behin Hernaniko Bertso Eskola feministara joaten naiz. Horrez gain, hilean behin Ahalduntze Eskolan ere elkartzen gara. Udan beste bertsolari batzuekin elkartuko naiz, Bizkaiko Txapelketaren hurrengo kanporaketa prestatzeko. Izan ere, udaberrian burututako sailkapen fasea gainditu dut, eta udazkenean final laurdenetan arituko naiz. Hura gainditzea ia ezinezkoa da, baina egindakoarekin pozik nago!

Zein da zure bertsolaririk gustukoena?

Maialen Lujanbio da onenetan onena, baina asko gustatzen zaizkit Maider Arregi, Miren Amuriza, Nerea Ibarzabal eta Ane Labaka ere, besteak beste.

Zein da emakumearen egoera bertsolaritzan gaur egun?

Egia da gaur egun ez direla gizonak bakarrik ibiltzen plazetan, baina emakumeen eta gizonen parte-hartzea ez da parekidea. Bertso eskoletatik plazara salto egitea falta zitzaien neskei, eta gaur egun jauzi hori egiten da; baina, oraindik ere, plaza tradizionaletan sei bertsolari badaude, emakumeentzat bi leku daude, eta horrek sortzen du emakumeen arteko nolabaiteko lehia, sortu beharko du litzatekeena.

Zein da txapelketetako errealitatea?

Txapelketetan gizonen bertsokerara ohituta gaude eta ez bazara molde horretan sartzen (eta ia-ia gizona



ez bazara) ez duzu zereginik. Gorputz denak ez dira leku guztietan onartzen. Txapelketako finalera helitzen diren neskek egin behar duten esfortzua askoz handiagoa da, eta norberaren autoexijentzia maila ere altuagoa da, egia esan. Hala ere, badaude beste plaza batzuk (Señoras Sariketa, Ahalduntze Bertso Eskola, literatura saioak...) eta espazio horietan emakumea da nagusi.

Nola ikusten duzu zure burua hemendik urte batzuetara? Bertsolaritzan jarraitzeko asmoa duzu?

Gustatuko litzaidake jarraitzea, oso gustura egiten dudalako, baina badakit ez dela erraza saioak izatea eta horrek motibazioa galtzea ekar dezakeela. Bitartean, ondo pasatu nahi dut, jendea ezagutu eta beste bertsolari batzuekin saretu.

“Emakumeek plazara salto egin dute, baina oraindik ez dago parekidetasunik”



- Akordeoia	- Gitarra	- Pianoa
- Biolina	- Gitarra elektrikoa	- Saxofoia
- Biolontxelo	- Gitarra baxua	- Trikitrixa
- Bonbardinoa	- Lengoia musikala	- Tronboia
- Flauta	- Klarineta	- Tronpeta
- Kantua	- Panderoa	- Txistua
	- Perkusioa	

**MUSIKA
ESKOLA**

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00
albokamusikaeskola@hotmail.com



ITZE
OPTIKA
AUDIO

Entzumenaren doako azterketak
Audifonoetan azkenengo teknologia

Zelai IV.a eta Zelai V.a Euskal Pentatloian aritu dira ekainean

Ekainaren 11n Bikotekako Euskal Pentatloia burutu zen Tolosan, eta bertan jardun zuen Zelai IV-Zelai V bikote mallabitarrak. Haiekin batera beste bost bikote aritu ziren, eta garaipena Gabirondo-Telleriarentzat izan zen. Mallabikoek laugarren postua eskuratu zuten, 3 minutu eta 12 segundora. Eginbeharreko probak izan ziren: harri-jasotzean, 40 altxaldi 100 kiloko bolarekin; harri-tiratzean, 4 plaza 400 kiloko harriarekin; aizkoran, 4 kana-erdiko moztu; 100 kiloko txingekin, 6 plaza; eta bukatzeko, 4 kilometro korrikari (40 itzuli zezen-plazari).

Aitor Elordi X. Bizkaia Torneoan dabil buru-belarri

Mallabiko frontoian jokatu zen Bizkaia Torneoaren hamargarren edizioaren lehen kanporaketa ekainaren 16an, eta Elordi-Zabaleta bikoteak 22-20 irabazi zion Ezkurdia-Rezusta bikoteari. Hogeita lau pilotari ari dira txapelketa horretan, sei multzotan banatuta, eta kanporaketa guztiak burututakoan, Bizkaia Frontoian egingo da finala, abuztuaren 22an, Bilboko Aste Nagusian. Bestalde, Aitor Elordik 2023ko Buruz Buruko Txapelketa irabazi zuen ekainaren 4an, Bizkaia frontoian jokaturako finalean, Jokin Altuna mendean hartuta, 18-22ko emaitzarekin.

Nesken frontenis txapelketa burutuko da uztailean

Uztailaren 1ean eta 2an burutuko dira nesken bikotekako eta banakako frontenis txapelketa, hurrenez hurren. Bikotekako partidak herriko frontoian jokatuko dira, eta aurretik Euskadiko egoiliar federatu gabekoek eskualde-fasea egingo dute. Banakako partidak, aldiz, eskolako frontoian jokatuko dira, eta kategoria bietan sari ezberdinak egongo dira (txapelak, garaikurrak eta diru kopuru ezberdinak). Mallabia FT taldeak antolatzen du txapelketa hau, eta izena eman nahi dutenek 669 02 87 18 telefonora deitu beharko dute (bikoteka, 18 euro; banaka, 8 euro).

Learreta-Markina Eskolaren 50 urteurrena ospatuko da urrian

Mallabiko Eskolak 50 urte beteko ditu laster, eta urteurrena ospatzeko asmoz, hainbat batzorde sortu dira: jaialdi batzordea, bazkari batzordea, dokumentazio batzordea eta kontaktu batzordea. Batzorde hauetakoren batean parte hartu nahi dutenek 943 17 03 34 telefonora deitu dezakete. Ekintza ugari burutuko diren arren, antolatzaileek aurreratu dute ikasleen, familien eta ikasle ohien bazkari herrikoia burutuko dutela urriaren 21ean. Bestalde, eskolako argazkiak biltzen dihardute, eta eskertuko lukete 50urte@mallabiaeskola.eus helbidera argazkiak bidaltzea.



Santixauetako Bertsolari Gazteen Saioa burutuko da uztailaren 16an

Urtero bezala, Bertsolari Gazteen bertso-saioa burutuko da herriko jaien atarian: uztailaren 16an, igandea, hain zuzen ere. Aurten bertsolari hauek parte hartuko dute: Irupe Basagoiti ermuarrak, Araitx Katarain mallabitarrak, Eneko Araiztegi segurarrak, Garazi Navarro amorotoarrak, Koldo Gezuraga gernikarrak eta Xabat Illarregi leitzarrak. Gai-jartzailea Ainhoa Urien abadiñarra izango da. Saioa 22:30ean hasiko da, Martxoaren 8a plazan, Ermuko Udalak eta Deba Beheko Bertso Eskolak antolatua.

Mendiola jatetxearen "Tuniado" pintxoak saria jaso du Bizkaiko Txapelketan

Ekainaren 13an eta 14an burutu zen aurten go Bizkaiko Pintxo Txapelketa, Bizkaiko Ostalaritza Elkarteak antolatua. Durangoko Kobika jatetxe-ko "Mr. Rabit" pintxoak jaso zuen lehen saria; bigarrena, Bilboko Antxoa tabernaren "Antxoa sobada" mokaduarentzat izan zen; eta hirugarrena Mendiola jatetxe-ko José Manuel Rodríguez-en "Tuniado" pintxoak jaso zuen. Artxandako Bilboko Goi Mailako Ostalaritza Eskolan egin zen lehiaketan, Ermuko beste bi ordezkari ere parte hartu zuten: Sagarrako "Bakailao molletea"k eta Kiskako "Hizkuntza unibertsala"k.



bizkaikopintxotxapelketa.eus

Gerediagak Durangaldeko historia-podcastak entzungai jarri ditu

Durangaldeko historia, kultura eta ondarea zaintzea eta ezagutaraztea helburu duen Gerediaga Elkarteak, gai anitzi buruzko zazpi podcast aurkeztu eta entzungai jarri ditu. Astola aldizkarian argitaratutako artikuluetan oinarritzen diren 10-15 minutuko iraupena duten audioak dira eta Durangaldeko hainbat pertsonen jarri diete ahotsa, tartean Estibalitz González ermuarrak. www.gerediaga.eus web orrian sartuz, entzuleak gehiago jakin lezake gai hauei buruz: Anbotoko Dama, Mikeldiko txerria, Momoitioko San Juango aurkikuntzak, Eloorrioko eskola esperimentalak, Iurretan lur hartu zuen hegazkina, Durangoko kotxearen abentura edota leinuen arteko gerrak.





Imanol Alvarezek Eskubaloiko Federazioaren aitortza domina jaso du

Urtero Eskubaloiko Espainiako Federazioak kirol hau sustatzen jardunikoak goraipatu nahi izaten du, eta jokalaria, entrenatzaile, klub eta erakunde desberdinak saritzen ditu. Imanol Alvarez egon da aurten izendatutakoaren artean, eta zilarrezko insignia eta domina eman diote selekzio junior eta absolutuarekin garatutako lanaren aitortpen gisa. Madrilan ospatu zen galan jaso zuen ermuarrak ohorezko esker on hau, pozarren.

Txabi Arnalen liburu bat 2022ko onenen artean aukeratua



Hiru lehoi


Edu Zelaieta Anta / Txabi Arnal Gil • AlexF



51

OEPLIJk (Organización Especial para el Libro Infantil y Juvenil) deritzon erakundeak urtero argitaratu ematen duen katalogoan, Estatuko onenen artean hautatu du *Hiru lehoi*, Txabi

Arnalek eta Edu Zelaietak elkarrekin idatzitako eta Alex Fernandezek ilustratutako ipuina, 6 urtetik gorako neska-mutikoei zuzendua. Ohorezko zerrenda hori, haur eta gazte literaturaren goren-goren 200 liburuk osatzen dute. Lanen kalitateari eta bikaintasunari erreparatuz, aukeraketa Estatuko hizkuntza ofizial guztietan 2022an argitaratu eman diren lanen artean egin da eta euskarazko liburuen proposamena Galtzagorri elkartearen eskutik bideratu da, OEPLIJren ordezkaria Euskal Herrian.



Jon Albizu
Ainhua M. Goitandia

Extremadura zeharbidea z/g
48260 ERMUA (Bizkaia)
Tel.: 943 174 505




Torrealday

ZURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOA


ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOLKULARITZA ERMUA

Plan B


Coffee Lounge Gin & Beer



Horacio Decoración
TAPIERIA - ALIZABIAE - OSAGARRIAE



VI Centenario 10 - Ermua
943 03 15 80 / 688 61 06 38
www.dghoraciodecoracion.com





Dagoeneko burutu dira Berbetan Jardunaldietako hiru saioak

Ekainaren 20an burutu zen aurtengo Berbetan Jardunaldietako azken saioa, "Kirola euskaraz" izenburua izan zuena. Herritar ugari bildu zen plazako eszenatoki txikiaren inguruan Mirene Morenoren, Sonia Sacedaren eta Leire Alvarezen hitzak entzuteko asmoarekin. Jardueraren dinamizatzaileak Jasone Izarra eta Gaizka Areitioaurtena izan ziren, eta guztiek elkarrekin solasaldi interesgarria eta atsegina eskaini zuten. Aurtengo beste bi saioak apirillean eta maiatzean egin ziren, eta saio haietan Kike Amonarriz euskal filologoak eta Amelia Barquín irakasleak parte hartu zuten hurrenez hurren. Euskal Birusa Euskara Elkartek antolatzen ditu Berbetan Jardunaldiak, eta haien helburua da euskararen inguruan gogoeta egitea. Egitasmo honek Ermuko Udalaren babesa du.



San Juan sua egin zen plazan, Euskal Birusak eta Txindurrik antolatua

Urtero bezala, San Juan sua egin zen plazan ekainaren 23an. Ekitaldia 22:30ean hasi zen, eta suaren ikusgarritasunaz gozatzeaz gain, bertaratutakoek disfrutatu zuten Txindurri taldearen akelarrekin, frontoitik jaitsi zen akerrarekin, korro dantzekin, abestiekin eta irrintzi lehiaketarekin. Lehiaketa honetan 8 umek eta 5 helduk parte hartu zuten, eta Alex Peñasek eta Hera Oliverrek jaso zuten saria umeen kategorian, eta Itsaso Lagunak helduen atalean. 00:00etan suzko zezena irten zen bazterrak nahastera, eta ekitaldia gaueko 00:15ean bukatu zen. Eguraldiak lagunduta, plaza jendez gainezka egon zen.



**ZUZENBIDE
KONTUAK**
Lege eta
kontu aholkularitza
Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com

Psikologia
Ongizate pertsonalerako zentroa

GUZTIOK
Nahia Rojo Bustindui
Psikologoa eta Sexologoa
Zubiaurre 40 · Ermua
Hitzordua: 688 85 18 95

MALLA
ile-apaindegia

Probaleku 8. behea © 943 17 18 50

KRABI
Ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

OSTEOPATIA
Pablo Lucena

617 680 156
info@osteopatialucena.com
Probaleku 5 - Ermua (Bizkaia)



**Barruratu zaitez
Debabarrean**

Pilotarien eskutik

ERMUKO FRONTOIEN ETA PILOTARIEN JAIOTETXEEN IBILBIDEA

Ermua tradizio pilotazale handikoa da eta kirol honetako modalitate guztietan jokatu duten ehundik gora profesional eman ditu herriak, batzuen lorratza kale-izendegian bertan ere jasotzen delarik. Herrian zeharreko ibilbide xumea proposatzen dugu eskuz, palaz, zestaz eta erraketaz, “Ermua” izena munduko txoko askotara zabaldu duten gizon-emakume haiek pilotan trebatu ziren frontoiak ezagutuz eta batzuen jaiotetxea kokatuz.

Sallabenteko frontoia

Herrian sakabanatuta dauden zortzi frontoiei, Sallabentekoan emango diogu hasiera. Zaldibarko lurretan kokatua, auzo horretako umeteriaren bilgune eta jolas-leku izan da beti. Ermitaren hegala ezkerpareta egiteko aprobetxatu zen, jatorrizko leiho ojibalak mantenduz, eta 1955eko San Lorentzo egunean inauguratu zen. Hantxe ekin zion eskuz Santi Agirrek eta eskolatik bueltan sarritan aurkari izaten zuen Charo de Cruz, gerora erraketista izango zena. Bertan zaletu zen ere Ernesto Vieira palista, profesional mailan debutatu duen azken ermuarra.

Frontoi Barrixa

Herrigunerantz abiatuko gara, Batzokiraino. Ostean frontoia du: 1935an eraikia, Frontoi Barrixa bezala ezagutzen zuten. Astero batzen dira bertan gaur egun ere pala edo esku-pilotan jarduteko, eta bilgune bihurtu da pilota eta hark dakarren lagunartea maite dutenentzat.



Plazako frontoi nagusiaren ondoan, hainbat pilotariren jaiotetxeak. E. GONZÁLEZ

Elizpeko arkupeak

Izelaietatik behera elizpeko arkupeetara ailegatuko gara: frontoia izan zen hori ere eta plazakoan lekurik ez zegoenean haraxe joaten ziren herriko umeak eta gazteak. Eskuz, barrusetara jokatzeko zuten estimazio handiena. Meza orduetan ez, jakina, ze klas! eta klas!, pilotaren horma-hotsak barruko guztiak aztoratzen zituen.

Areitotarrak

Gertu, Santiago plazako arkupeen gaineko etxeari pilota usaina da-

**Erdikokalen etxe
gehienek dute
pilotarien lorratza:
puntistak, palistak,
erraketistak...**

rio: hortxe jaio ziren Angel eta Felix Areitio zesta-puntista entzutetsuak eta Solozabal anaia guztiak: Dani palista eta Miguel, Ignacio eta Alex puntistak. Victor Yarza euron lehengusu pilotari puntista ere, etxe berean biziko zen gerora.

Erdikokaleko pilotariak

Erdikokalera eramaten gaituzte gure pausuek eta etxe gehienek pilotarien lorratza dute, bertan jaio edo bizi zirelako: 5. peoran Rosendo Garate puntista eta Felix eta Jose Andres Izagirre palistak, 6an Juan Jose Ibarrola, 7an Nikolas Lizundia, 8an Juan Jose Solozabal eta Jose Luis Izagirre eta 10ean Eduardo Unamuno, bostak zesta-puntan aritutakoak. Azkenik 11n Zubizarreta anai-arrebak: Rosario eta Eladia erraketan, Ignazio eta Fernando zestan.



Sallabenteko frontoia. ESTIBALITZ GONZÁLEZ.



Santiago plaza eta Erdikokale. E. G.

Felix Izagirre "Txekorra"

Erdikokaletik plazara, nahi eta nahi ez Felix Izagirre Zeharbidetik igaro beharra dago, jaio eta bizi izan zen etxe bien artean. Frontisaren ondoan, plaka-eskultoriko batek gogora ekartzen digu "Txekorra", bere sasoiko palistarik distiratsuenetakoa, hantxe hasi zela pilotari hautsak ateratzen. Herriko frontoi nagusiak plazaren zatirik handiena hartzen du eta desafio, partida eta une gogogarrien testigu izandakoa da, profesional zein afizionatu mailetan.

Cantabria Zeharbidea

Gertu dago ere Cantabria Zeharbidea, esku-huskan eta palan nabarmendutako Bernardo eta Toribio Garate anaien omenezkoa. Erdigune aldean erraz egin daiteke topo Juan Luis Arrarte, Miguel

Altuna, Eusebio Yarza, Nikolas Mugerza, Miguel Okariz edo Dani Solozabal pilotari puntista ohiekin. Zubiaurre kalean aurrera jarraituz, arbola artean Igartuaneko etxea dugu: Irene Ibaibarriaga erraketistaren bizileku, Rosario, Poli eta Bitxori erraketisten ahizpa eta Bizente puntistaren arreba izandakoa.

Lau frontoi gehiago

Pasealeku atsegina da Pagorbe ingurutik Ongarai auzora eramaten gaituena, eskola gunera. Ber-

tan hiru frontoi topatuko ditugu: Anaitasuna Ikastolan, Ongarai Eskolan eta Ermua BHI Institutuan. Herrira jaitsiz berriro, Arizmendi pilotalekua dugu San Pelaion. 1984an inauguratu zenetik, esku-pilota eta pala dira bertan jokatu diren modalitateak, eta bere instalakuntzak beste kirol batzuetarako ere erabiltzen dira, euriarekin herriko ospakizun ugariaren ataragune izateaz gain.

"Bertako Bilduma"

Ibilbideari amaiera emateko Udal Liburutegira gerturatuko gara: "Bertako Bilduma" dugu bertan, pilotarien gaineko hainbat argazki eta prentsa-artikulu gordetzen dituen. Etxeratu osteko atsedenean on-line ere kontsultatu daiteke Udaleko webgunean, "Ezagutu Ermua" atala klikatuz eta "Tokiko Bilduman" arakatzuz.

Liburutegiko "Bertako Bilduma" k pilotarien gaineko argazkiak eta prentsa-artikuluak gordetzen ditu.



12 millas
nautika eskola

Bidaiak, esperientzi ahaztezinak eta titulazioak lortzeko aukerak!!



Nabegaziko lizentzia



Oinarriko Nabigazio patroli titulazioa



Jolas ontziako patroli titulazioa



Yateko patroli titulazioa



Yateko kapitain titulazioa

www.12millas.es / 609 245 190 / Toletxe kaka, 13 - ELGOIBAR




"2024rako Oizeko Ibilbide Megalitikoa martxan jartzea aurreikusten dugu"

JUAN CARLOS LÓPEZ QUINTANA ARKEOLOGOA

2021ean ekin zioten Agiri Geoarkeologia Elkartek eta Mallabiko eta Berrizko Udalek Oiz mendiko proiektuari, Juan Carlos López arkeologoa buru, eta urteotan hainbat aurkikuntza egin dituzte.

Zenbat monumentuk osatzen dute Oizko estazio megalitikoa?

Proiektu honekin hasi ginenean, Eusko Jaurlaritzak sei monumentu zituen Kultura Ondasun gisa kalifikatuta, baina lehen azterketa batean haietako bat baztertu genuen, ez baitzelako trikuharria baizik eta formazio naturala. Hala ere, 2021ean bertan, cromlech edo harrespil berri bat aurkitu genuen, eta 2022an beste bi topatu genuen, guztiz lurperatuta. Hori dela-eta, gaur egun zortzi monumentu ditugu. Eta baliteke 2024an besteren bat gehiago aurkitzea.

Monumentu multzo honek berezitasunen bat du?

Oiz mendian Bizkaiko historiaurreko hilobi-sekuentzia megalitiko luzeenetako bat dugu. Lau mila urte inguruko sekuentzia bati buruz hitz egiten ari gara, non hileta-praktiken bilakaera ikus daitekeen: ehorzketa kolektibo eta indibidualak hasi, eta gorpuen errausketaraino. Horrez gain, historiaurrean dauden hilobi-monumentu mota ia guztiak ikus daitezke bertan, eta hori ez da bate-re arrunta: trikuharriak, harres-



Juan Carlos López Quintana.

pil-baratzeak eta iruinari bat. Eta seguruenik badago ere zista bat. Zistak hilobi megalitiko txikiak dira, gorpu bakarra edo bakar batzuk jasotzen zituztenak, eta historiaurreko fase berriago batean eraiki ziren.

Oraindik ere baduzue zer aztertu, beraz...

Bai, lanean dihardugu, baina hala ere dagoeneko badakigu Piriniotako harrespilen eremutik mendebalderen dauden monumentuak direla hauek. Piriniotako harrespilak eremu oso mugatuan eraiki

ziren: Andorran, Huescan, Nafarroan eta Iparraldean hasi, eta Leizaran eta Oria ibaietaraino. Oizkoa, beraz, eremu horretatik kanpo dago, eta hori ere oso deigarria da.

Zer dela-eta hasi zineten Oizko ibilbide megalitiko honetan lan egiten?

Alde batetik, Agiri Arkeologia Elkartean buru-belarri ari gara lanean Bizkaiko monumentu megalitikoaren babesa sustatzeko, eta iruditzen zitzaigun Oizko monumentuak ez zeudela oso ondo zainduta eta identifikatuta. Berrizko Udalak interes berezia zeukan gai honetan, eta 2021ean proiektu bat aurkeztu genuen Berrizko eta Mallabiko Udalak barne hartzen zituena. Gero, Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza jaso genuen 2022a eta 2024a bitartean proiektua burutzeko. Honen helburua da Oizko Estazio Megalitikoa babestea eta balio ematea, eta gizartea sentibilizatzea kultura-ondarea zaintzeko beharraz.

Noiz egongo da bisitatzeko moduan?

Duela urtebete bisita gidatua egin genuen, eta ehun lagunetik gora bildu genituen, baina asmoa da norbanakoak bere kabuz joatea. Horretarako teknologia berrietan oinarritutako baliabide didaktikoak izango dira eskuragarri 2024an, Mallabiko eta Berrizko Udalen eta Agiriren webgunetan. Halaber, monumentu bakoitzaren ondoan QRak jarriko dira, kontakizun historiko zientifikoa entzun eta berrieraikuntza birtualak ikusteko.

"Oizen historiaurreko hilobi-monumentu mota ia guztiak ikus daitezke, eta hori ez da oso arrunta"

Aitzbeltz, magia handiko ondarea

LEIZEA ETA ONDARE PALEONTOLOGIKO ABERATSEKO KOBAZULOA



Aitzbeltz kobazuloko ataria eta sarrerako galeria. MORKAIKO-LEIZARPE TALDEA

Kondairak dio, duela urte asko, gaur hondoa jota dagoen Mendaroko Erentza baserrikoek morroia bidali zutela Munatxo baserri urrunduraino mandatu bat egitera, eta hark, biderik laburrena hartu zuela, Aitzbeltzeko leizetik eta izen bereko kobazulotik gertu pasatzen zen bidexka bat. Leize parera iritsi zenean, txakur handi bat irten ei zitzaion leizetik eta hiru egi handi esateko eskatu. Eta hasi ei zen morroia berbetan, ikaruta: “Eguzkia beroa da, baina sua beroagoa; iletargia argia da, baina eguna argiagoa; eta txakur handiak ikusi ditut, baina zu bestekorik sekula ez”. Hiru egiak esandakoan, txakurrak hagin adar bat eman ei zion. Elezaharraren arabera, morroi hark ez zuen gehiagorik hitzik egin eta handik gutxira hil zen, Erentza baserrian.

1955ean, Aranzadi zientzia elkarteke espeleologo talde batek ezagutarazi zituen lehenengoa

Aitzbeltz leizearen barrunbeak. Juan San Martin eibartarra izan zen leizera sartzen lehenengoa, 1955eko ekainaren 24an, eta urte asko igaro badira ere orduetik, oraindik egin gabe dago barrunbe horren benetako miaketa eta topografia. Nolanahi ere, orduan batutako datuekin, gaur, nekez sinistu daiteke leizetik piztirik irten daitekeenik, 279 metroko sakonerako zuloa delako. Baina asmatutakotik adina izaten dute egitik kondaira askok, eta honek bere badu bere egi zatia. Izan ere, leize hartatik metro gutxira dagoen izen bereko kobazuloan izan ziren, bai, piztiak garai batean, historiaurrean gizakia ez ezik hartzak ere bizi izan zirelako han.

Aitzbeltz kobazuloa

Barrunbe zabal eta handia da Aitzbeltz kobazuloa eta XX. mendeko lehen hamarkadetan erromeriak ere egin izan zituzten han. Azke-

neko urteotan, tradizio zahar hori berreskuratu dute Mendaron Motxaila Elkartekoek eta udaberriaren iritsiera ospatzeko urtero egin ohi dute hara ostera, Motxaila Egunean.

Baina arkeologikoki ere interes handiko gunea da Aitzbeltz. Ondare paleontologiko handia du, bere galerien amaieran dagoen 35 metroko sakonerako leize tranpan harrapatuta. Aitzbeltzeko galerietan hamarnaka hezurtegi daude, eta hango hormetan tamaina guztietako atzamarkek antzeman daitezke. Eta jakina, ondare horri eman zaion balio eskasaren adierazle, grafiti-erregistroak ere badaude, batzuk XIX. mendekoak.

Ezbairik gabe, kontatzeko asko gordetzen du Aitzbeltzek, arkeologoek bakarrik deszifratu ahalko dutena. Bitartean, haitzuloa zaintzea dagokigu bisitariari, etorkizunean kondairak barik Izarraitzeko ibar hauetako iragana kontatzeko bide eman diezagun.

Gerrak lagatako zaurietan zehar

EIBAR 1931-1945 EKIMENAK GERRA ZIBILAREN ERAGINA AZALERATZEN DU

Eibar estatuko lehen herria izan zen II. Errepublika aldarrikatzen, Gerra Zibileko gerra frontea izan zen 1936ko irailetik 1937ko apirilera arte, eta bombardaketen ondoren herria berreraiki behar izan zuten. Hori da, hain zuzen ere, Eibar 1931-1945 ekimenak herrian bertan eta mendian dauden ibilbideetan zehar erakusten diguna. Hainbat panel aurkitu ditzakegu azalpenekin eta, bertan agertzen diren QR kodeak eskaneatuz gero, argazkiak eta bideoak ere ikus daitezke (mugikorrerako aplikazioa ere badago).

Jesus Gutierrez historialaria Udalarekin elkarlanean ibili da ibilbideak prestatzen eta berak eman dizkigu ekimenaren nondik norakoak. Ordena kronologikoa jarraitu nahi izanez gero, herrian hasi beharko genuke ibilbidea, Ego Gain kalean. Hor egiten dute bat Alfak, langile autogestioko esperientzia gisa 1920tik kooperatiben proiektu aitzindari izandakoak, eta Untzaga plazak, udaletxearen kokalekua, II. Errepublikaren aldarrikapenaren sinboloa.

Eibarrek hamabost hegazkin-bombardaketa jasan zituen, lehen 1936ko abuztuan eta azkena 1937ko apirilaren 26an. Okerrenak, baina, apirilaren 24koa eta 25koa izan ziren, Mussoliniren legioko italiar abiazioaren eskutik Hitlerren alemaniar Luftwaffearen agindupean.

Ibilaldiak Untzagara jotzen du gero. II. Errepublikaren aldarrikapenaren eta 1934ko urriko iraultzaren berri ematen da bertan,



Gerra Zibileko Interpretazio Zentroa. EIBARKO UDALA



Informazio panelak jarri dituzte.

eta, besteak beste, udaletxeko fatxadan ikus daitezkeen zuloen jatorria zein den azaltzen da.

San Andres elizan du jarraipena ibilbideak. Udaletxearekin batera, ospe handieneko eraikina da Eibarren. Izan ere, XVI. mendean eraiki zuten eta haren in-

gurumaria oso kaltetuta aterazen gerratik. Elizaren kanpandorreak, herriko eraikin garaiena zenez, Amuategui Batailoiarentzat behatoki lana egin zuen, eta matxinoek, eliza, kanoiez tiro egiteko erreferentziatzat hartu bazuten ere, fatxadak ez zuen kalterik jasan.

Herri barruko ibilbideak Bidebarrieta kalean jarraitzen du, gune hori izan baitzen gerrak eragindako kalteen ondoren aldaketa gehien izan zituena. Izan ere, eraikin apal ugari zegoen kale horretan eta kanoiek edo hegazkinen tiroek eragindako sua oso erraz zabaltzen zen aldameneko etxeetara. Gerra ostean, Bidebarrieta eta inguruko kaleetan aldaketa handiak egon ziren, kale zaharrak eta merkatu plaza betiko galdu ziren, eta, trukean, hirirazatu guztiz ezberdina eraiki zen, baita merkatu plaza berria ere.

Urkizu auzoan Eibarko hiru enpresa sinbolikorekin egiten dugu topo: GAC, BH eta Orbea. Hain zuzen ere, Orbea zegoen tokian egiten da geldialdia eta 1840an armak fabrikatzeko sortu zela aipatzen da. I. Mundu Gerraren amaieraren eta 1929ko krisiaren ondorioz, armen negozioa agortu egin zen eta herriko hainbat enpresa produkzioa dibertsifikatzen hasi ziren. Urkizuko horiek, adibidez, bizikletak egiten hasi ziren. Gerra sasoian Orbean blindatuak fabrikatzeko sistema antolatu zen matxinoei aurre egiteko. Gainera, Euskal Herriko toki askotatik Errepublikaren defendatzaile ugari heldu ziren armak eskuratzeraz, herriko industria aprobetxatuz.

Ibilbideak Errebal kalera jotzen du ondoren, eta han zegoen Agustindar Errekoletoen komentuak italiar eta alemaniar abiazioen

aldetik jasan zuen zigorra aipatzen da, bertan hartu baitzuten aterpe hainbat batailoik.

Herriko ibilbidearekin amaitzeko, gerraostean hirigintzaren aldetik izandako aldaketa sakona azaltzen da Toribio Etxebarria kalean. Berreraikuntza-lanetan, gainera, gerrako preso askok hartu zuten parte.

Mendiko lubakiak

Mendian, Arrate, Santakurutze eta Akondia inguruan gerraren gordintasuna ikus daiteke, eta ibilbidea jarraituz lubakiak bisitatu daitezke. Gainera, Arraten,

Bi ibilbide daude gerrak Eibarren laga zuena ezagutzeko: hirian eta mendian

Gerra Zibileko Eibarko Frontearen Interpretazio Zentroa dago (Arrateko aterpetxean), "lubaki bat errepresentatzen duena", Gutierrezen berbetan.

Interpretazio zentroak gerra sasoiko Eibarren eta inguruaren maketa modernoa, gerrako alde bien uniformeekin jantzitako manikiak, borroka lekuetan erabilitako tresneria, Gerra Zibilaren gordinena gertutik bizi izan zutenen testigantzak biltzen dituen ikus-entzunezkoa eta garai hartako propaganda kartelak biltzen ditu.

Zentroa domeketan egoten da zabalik, 11:30etik 13:30era. Aterpearen inguruko informazio gehiago behar izanez gero, albergues@ateri.net helbidera idatzi daiteke; eta zentroari buruzko informazioa jasotzeko kultura@eibar.eus helbidera.



BELAUSTEGI
— BASERRIA —

SAN MIGUEL GAINA, 44 . 20870 ELGOIBAR 943 74 31 02 WWW.BELAUSTEGI.COM

Ezkutuko altxorrak

MUFOMI FOSIL ETA MINERALEN MUSEOA ETA HEZUR MUSEOA, BI PERLA

Begi bistakoa dena berehala egiten da ezagun, baina altxorrik ederrak ezkutuan gordeta egoten dira sarri, foku guztietatik urruti. Elgoibarren baditugu halakoak, eta horietako bi aipatuko ditugu gaur: Mufomi fosil eta mineralen museoa eta historiaurreari buruzko Hezur Museoa. Artetxe kaleko 28. zenbakian daude, bata bestearen parean, ezkutuan, baina gaur, argitara aterako ditugu.

Fosilak eta mineralak

1992an zabaldu zuten Mufomi Fosil eta Mineralen museoa Elgoibarren, baina gaur egun oraindik ere ezezaguna da jende askorentzat. 3.600 pieza inguru ditu erakusleihatuan bilduta. Gehienak fosilak dira, 2.300 inguru, eta gainerakoak mineralak. Hemen bertakoak eta kanpokoak, txikiak zein handiak, koloretakoak, hainbat forma eta materialetakoak... Pieza horiez gain, lurpeko faunaren aztarnak, meatzaritzako elementuak, eta animalien eskeleto eta burezurak ere ikus daitezke.

Javi Vargas da museoaren sortzaile eta arima. Ez dago bakarrik baina, afizio bera duen Angel Mari Tobajas espeleologoarekin aritzen baita lanean, museoa bizirik mantentzeko. Azken berrikuntza dela urtebete zabaldu zuten: Arbasoen harpea.

Hiru urteko lanaren ostean, historiaurreko koba baten erreplika egin dute museoaren azpiko aldean. Bost gunetan banatu dute koba, eta bertan jasotako margoen bi-



Europako koba ezagunenetako irudien erreplikak marraztu dituzte koban.

tartez, labar artearen historia bildu dute. Euskal Herriko, Espainiako eta Frantziako koba ezagunenetako irudi adierazgarrien kopiak egin dituzte, batzuk tamaina errealean eta besteak, eskalan. Altamira, La Araña, Ekain, Lascaux edo Chauvet kobazuloe-tako irudiak ikus daitezke, animalien gehienak, baina lehen giza irudien errepresentazioak ere egin dituzte. Orain dela 67.000 urtekoak dira ikus daitezkeen lehen irudiak, eta orain dela 7.000-6.000 urtekoak azkenak. 45 bat metroko luzeera

Mufomi museo azpiko Arbasoen Harpeak 45 metroko luzeera dauka eta lau metroko altuera

dauka kobak, eta lau metroko altuera.

Dibulgazio eta pedagogia lana egitea da museoaren helburu nagusia, eta ikastetxeetan ikasitako hainbat gai bertatik bertara eza-gutzeko aukera eskaintzen du, historiako garai desberdinetan zehar bidaia eginez. Astegunetan 18:00etatik 20:00etara egoten da zabalik, eta asteburuetan 11:00etatik 14:00etara, baina aurrez hitzordua eskatzea komeni da: 608 416 683 / info@mufomi.org.

Hezur Museoa

2019an zabaldu zuten Elgoibarko Hezur Museoa. Museo bitxia da, berezia, eta Euskal Herrian, bakarra. Artetxe kaleko 28. zenbakian dago, nahiko leku ezkutuan, baina barruan dagoenak bistaratzea merezi du. Jose Julian Marquez da museoaren sortzailea eta ar-



Hezur museoko hormak eta sabaia koba itxura ematen diote museoari.

duraduna, eta guzti honen oinarrian bere zaletasuna dago. Mimos, pasioz eta maitasunez sortutako obra da Hezur Museoa, eta bertan dauden pieza eta elementu guztiak Marquizek berak eskuz egindakoak dira.

Atetik sartzerakoan historiaurreko museo batean barneratzen da bisitaria. Hormetan eta sabaian animalien irudiak ageri dira, okre koloreko tonu desberdinetan margotuta. Historiaurreko gizakiak kobetan horrelako irudiak marrazteko ohitura zeukan, eta horixe bera irudikatu nahi izan du Marquizek marrazki horiekin. Historiaurreko gizakiak marrazten zuen modu berean egin ditu marrazkiak, museoari kobazulo itxura emateko. Altamira, Ekain, Chauvet edo Lascaux bezalako kobetan aurkitutako margoen erreplikak dira.

Barrura sartu, eta horma-irudiekin batera, bitrina eta apaletan bildutako tresnak ikusten dira begiratu batean. Benetakoak dirudite, baina erreplikak dira. Interneten edo liburuetan aurkitzen ditu benetako piezak, eta haiei buruzko informazioa eta originalen detaile guztiak zaintzen ditu kopiak egiterakoan: materiala, irudiak, tamaina... Ordu askotako lana dago tresna bakoitzaren atzean.

Azken hamar urteotan egin ditu Marquizek tresna gehienak, bai-

Denetariko piezak aurki daitezke Hezur Museoan, Brontze garaitik Paleolitikora artekoak

na arkeologiarako zaletasuna aspaldikoa du. 12 bat urte zituela, Elgoibarko Aizkora izenez ezagutzen den pieza aurkitu zuen Morterika inguruan, amuarrainak arrantzatzen ari zela. Hasieran pentsatu zuen mineral bat zela, malakita hain justu ere, berde kolorekoa delako, baina antzinarako tresnaren baten itxura ere hartu zion, eta hara non ikusi zuen gero anaiaren eskola-liburu batean berak aurkitutako aizkoraren parekoa! Brontze aroko aizkora zen, Kristo aurreko 1.500 urte ingurukoa. Orduan konturatu zen haren balioaz; aurkikuntza garrantzitsua izan zen hura Elgoibarrerako. Gaur egun, originala Euskal Herriko arkeologia gordailuan dago.

Denetariko piezak aurki ditza-kegu, Brontze Garaitik Paleolitiko garaira artekoak; kristo aurreko 1000. urtetik 700.000 urterakoak. Aurkikuntzak egiten dituztenean ohikoena izaten da piezak puskatuta aurkitzea, baina Marquizek haiei buruzko informazioa bildu eta osorik egiten ditu.

Historiaurreko gizakiak nola bizi ziren erakutsi nahi du Marquizek, eta tresnen bidez, haien inguruko azalpen guztiak ematen ditu bisita gidatuetan. Horrez gain, lan-tzean behin, erakustaldiak ere egiten ditu, garai hartako tresnak nola erabiltzen diren erakusteko, eta sua egiten ere irakasten die bisitariari, lehen gizakiak erabiltzen zituen teknikak erabilia.

Hezur museoa bisitatzeko hitzordua eskatu behar da: 650 353 566.

Oreka Art Gallery Soraluzen

IZEN HANDIA DUTEN ARTISTEN ERAKUSKETAK IZATEN DIRA ARTE GALERIAN

Soraluzen, bada Oreka izeneko arte galeria bat, Gabolats kalean, Oreka Art Gallery and Consulting du izena.

Debabarreneko herri txikienetako batean dago kokatuta eta galeria bi aretotan dago banatuta. Hilero, erakusketa berria inauguratzen dute bertan eta bisitari guztiendako dago zabalik, debalde, gainera

Izen handien eta ezagunen artelanak izaten ditu ikusgai, hemen inguruko artistenak zein urrunagokoenak.

Azkargorta, Errazu, Zumeta...

Gertukoen artean, Oreka Art Gallery bertatik bertara ezagutzen dute, adibidez, Ricardo Azkargorta eta

Luis Laskurain bergarrek, Jon Errazu eta Juan Manuel Arruabarrena soraluzetarrek, Vicente Iriondo eibartarrak, Victor Arrizabalaga mañariarrak, Keixeta zestoarrak, Aitor Ruiz de Egino heraniarrak, Xabier Egaña getxotarrak, Angela Silva gasteiztarrak, Juan Ayesta beasaindarrak zein Usoa Zumeta usurbildarrak.

Peñalver, Lleó, Picasso...

Urrunagokoen artean, berriz, Manolo Oyonarte, Rafael Peñalver, Malu Riaza eta Ivan Araujo madrildarraren margolanak izan dira ikusgai Oreka Arten, Isabela Lleó mallorcarraren eskulturak, Laia Bedos Bonaterra kataluniarraren margolanak zein Barbara Stammel

alemaniarrarenak. Une honetan, Diego Montalbanen obraren mostra eder bat dago ikusgai.

Horiez guztiez aparte, Oreka Art galeriaren sortzaile, bultzatzaile eta kudeatzaile Alberto Ramirezek eskutik, Pablo Picassoren, Eduardo Chillidaren zein Simon Arrieta-aren lanak ere ikusi ahal izan dituzte Soraluzeko arte galeria bisitatu izan dutenek.

Artea arnasbide

Ofiziosz protesigilea bada ere, artea du maite Alberto Ramirezek (Paradas-Sevilla, 1960). Esan izan du berarentzat artea arnasa hartzea dela. Egunero pintatzen du, beraz, obra emankorra du. Adibidez, historiako pintore nagusien bizi-



Manolo Oyonarte Oreka Art galerian.



R. Azkargorta eta A. Ramirez.



Keixeta galerian.



Vicente Iriondo eibartarra.

tzak eta obrak ulertu eta berrin-terpretatzeko ahalegina egin du, Tapiés, Picasso, Estevan Vicente, Palazuelo... Inspirazio iturri modura, berriz, XX. mendeko abangoardia guztiak aintzat hartzen ditu: inpresionistak, Picassoren kubismoa, Kandinski espresionismoa, Malebichen eskola errusiarra...

Baina artista izatetik haratago artearen bultzatzaile sutsua da eta Soraluze arte mugimenduak ekarri eta Soraluze arte bideetan jartzeko helburuarekin, Oreka Art Gallery zabaldu zuen, 2009an.

Galeriaren altruista

Soraluzeko arte galeriak erakundeen eta hainbat fundazioren laguntza izan zuen, baina haren funtzionamendua erabat altruista zen.

Erakusketen programazioaz, artistak ekartzeaz, haiei arreta

**Koldobika Jauregi,
Jose Zugasti, Bingen de Pedro, Mikel Lertxundi
eta Juan Jose Altuna
izango dira galerian**

emateaz eta erakusketen antolatzeaz Alberto Ramirez arduratu izan da, eta, hori gutxi ez, eta erakusketa guztietarako sarrera debalde izan zen.

Azkenean, zailtasun ekonomikoak zirela eta, bi urte geroago Oreka Art galeriak atek itxi behar izan zituen.

Dena den, hamar urte beranduago, 2021ko martxoan, bigarren aldiz zabaldu zuen Alberto Ramirezek arte galeria, berritutako eta egokitutako lokal batean, oraingoan ere guztia bere eskutik. Galeriararen bigarren etapan, dagoeneko 20 erakusketa pasa izan dira ikusgai.

Berritasunak 2023-2024an

Etorkizunari dagokionez, indartsu dator 2023-2024 denboraldia. Alberto Ramirezek aurreratutakoaren arabera, dagoeneko hitzartuta ditu Koldobika Jauregi, Jose Zugasti, Mikel Lertxundi, Bingen de Pedro zein Juan Jose Altuna artisten lanekin erakusketak egingo direla. Gainera, berritasunak iragarri ditu datorren denboraldirako, besteak beste, obra publikoren bat ekartzeko aukera, artistaren baten obrak Oreka Arten zein Udalaren erakusketa gelan, bietan ipintzea, baita artelan batzuk kalean ipintzeko aukera izango dela ere.



TIRO PITXON Jatetxea

Arrate auzoa, 5 EIBAR

943 20 88 59

Karta, eguneko menua, bereziak, pertsonalizatuak, ezkontzak, ospakizunak... Terraza eta bista ederrak

Debabarreneko betiko ostata

Bizkaia Etorbidea, 13 · ERMUA

943 17 00 19

www.melidaostatua.com

Gure ondare arkeologikoa, argitara

HAB HISTORIAURREKO BAILARA

"Historiaurrearen ezagutzan eta interpretazioan erreferente bihurtu nahi dugu Deba bailara". Hitz horiekin aurkeztu zuten martxoan Euskal Kostaldeko Geoparkeko eta Debako Udaleko kideek HAB Historiaurreko Bailara proiektuaren ibilbidea.

Maiatzaren bukaeran egin da, dena den, "aire zabalean sortutako museoa" bertatik bertara ezagutzeko lehen irteera edo bisita gidatu interpretatua. Bertan izan ziren, besteak beste, Aranzadi Zientzia Elkarteko Xabier Peñalver arkeologoa, UPV/EHUko Jose Antonio Mujika arkeologoa, eta Asier Hilario Geoparkeko zuzendari zientifikoa, hitzordura batutako hamarnaka lagunren aurrean azalpenak ematen.

Gaur-gaurkoz, hiru kilometro eta erdiko ibilbidea eskaintzen zaio bisitariari (ez da zirkularra). Norbere kabuz erraz egiteko moduko bidea da, nahiko laua ia bere osotasunean, eta irisgarria.

Debako portuaren inguruan kokatu dute ibilbidearen hasiera eta, Anes Arrinda pasealekutik abiatuta, zubi alderantz segi eta lau zati edo gune nagusitan banatuta dago ondorengo bidea: gizakia eta itsasoa (itsasadarra), gizakia eta estuarioa (Casa Campo), zubia (bizitza nomada), eta bailara (Sasiolako bidea).

Hondartzatik gertu hasi eta Sasiola ingururaino iristen da, hortaz, eskualdeko ondare arkeologikoa argitara emateko helburuz sortutako proiektuaren lehen fasearen emaitza.



Anes Arrinda pasealekuan kokatu dute ibilbidearen hasiera. IZARO AULESTIARTE

Hainbat euskarri prestatu dituzte informazioa modu erakargarri eta ulergarrian eskaintze aldera, eta indar handia dute, oro har, irudiek: Jose Ignacio Treku sortzaile debarrak, esate baterako, ilustrazio ikusgarriak egin ditu propio ibilbidean ezarri diren panel eta interpretazio guneetarako (ibilbidearen hasieran ezarri dute haren artelanik handiena).

Inguru hauetan aurkitutako apaingarri, seinale eta pieza askotan oinarritutako erreplikak ere ikusgai daude erakusmahaietan, baita fosilen erreplikak ere.

Deba bailaran duela 200.000 eta 15.000 urte bitartean bizi ziren gizakiak, animaliak eta haien arteko harremanak nolakoak ziren ezagu-tarazi nahi dute HABen bitartez. Gure geografian izan diren klima-aldaketek utzitako arrastoak aztertuz, Paleolitoko gizakia- ren bizi-baldintzen eta baliabideen berri eman nahi zaie herritarrei.

"Geologia, klima aldaketak, basoak eta gizakien sorkuntzak zein animalien arrastoak aztertuz, paisaiaren eraldaketaz, eta horrekin batera gizakiaren garapenez jabetuko gara; itsasertza, ibaia, karst pinakularrak eta estuarioaren garrantzia zein den erakutsiz, eta, ondorioz, Debako paisaiari bere balioa emanaz", azaldu dute proiektuaren arduradunek.

Azken urteotan, flyscharekin lotu izan da bereziki Euskal Kostaldeko Geoparkea. Baina "hori baino gehiago da", eta hori erakustera dator, hein handi batean, Historiaurreko Bailara proiektua.

"Historiaurrearen ezagutzan eta interpretazioan erreferente bihurtu nahi dugu bailara"



Adituak azalpenak ematen maiatzeko bisita gidatuan. IZARO AULESTIARTE

Barnealdeko geologiarekin lotuta, hain zuzen, bada beste "altxor" bat inguruotan: bereziki, Deba bailaran dauden kobazuloak eta aztarnategiak. Ermitia, Praileaitz, Langatxo, Iruroin... dira horren adibide. Asier Hilariok azaldu bezala, "Kantauri isurialdeko aztarnategi kopururik handiena dago ingurune honetan, hoguei bat, eta Deba da erdigunea. Hortaz, datu

asko ditugu aztertzeko. Eboluzioa irakurtzeko aukera ematen digu. Oso aukera ona da leku bakar batean historiaurrea ezagutzeko".

Proiektu oso baten lehen fasea
Hainbat urtetako elkarlanaren emaitza da zientzia, artea eta komunikazioa uztartzen dituen HAB proiektua eta erakunde ezberdinen babesa du. Besteak beste, Aran-

"Kantauri isurialdeko aztarnategi kopururik handiena dago ingurune honetan eta Deba da erdigunea"

zadi elkarteko Xabier Peñalver arkeologoa, EHUko Jose Antonio Mujika arkeologoa eta Asier Gomez paleontologoa, Asier Hilario Geoparkeko zuzendari zientifikoa, Gordailua eta Bizkaiko Arkeologi Museoa ere bidelagun izan dituzte, haien zuzendaritza zientifikoa eta aholkuak aintzat hartuta landu baita egitasmoa.

Dena den, proiektu oso baten lehen fasea baino ez da orain arte egin den esku-hartzea eta jarrai-pena ematea aurreikusten dute. Oraingoan, Sasiolako begiratokian amaitzen da ibilbidea, eta Praileaitz eta Ermitiako haitzuloak daude han inguruan, bata bestearengandik oso gertu; bada, Praileaitz ingurua museo bihurtu eta Ermitian bisita gidatuak egitea da asmoa.

Haur, gazte eta helduentzako **surf ikastaroak**, hastapenetik hasi eta hobekuntzaraino. Maila guztietarako **materialaren alokairua** eta **aholkularitza profesionala**.

Hondartza kalea 20 - DEBA
688 743 863
eskola@yakosurf.com
denda@yakosurf.com

Amonite erraldoien gordeleku

MUTRIKUKO NAUTILUS IKASGUNE GEOLOGIKOA

Euskal Kostaldeko Geoparkearen bihotzean kokatuta, ageri-ageriko eta ezkutuko altxorrez betetako ingurune natural aparta dauka Mutrikuk; horren lekuko dira flysch beltza bezalako eremuak. Milioika urte atzera egin eta ingurune-ko urruneko iraganari, jatorriari eta eraketari buruzko jakin-mina ase nahi dutenek Nautilus Ikasgune Geologikoan daukate horretarako aukera aproposa.

Ehunka bisitari erakartzen ditu urtero museoak eta, aretoa txikia bada ere, ez da nolana hiko bertan ikusgai dagoen altxorra: euskal kostaldearen zein Lur planetaren iraganik urrunena ulertzeko ezinbesteko bihurtu den fosil bilduma zabal bat dago bertan.

Amoniteek duten tamaina, kalitatea eta dibertsitatea kontuan hartuta, gainera, literatura zientifikoan ezagutzen den bilduma handienetarikoa bat da Nautilusekoa.

Oso berezi egiten duen beste balio erantsi bat ere badauka bildumak, duela milioika urte itsasoan jaun eta jabe ziren izaki haien fosilak Mutrikuko zazpi hondartzen inguruetakoa labarretan jasotakoak baitira.

Aurkikuntza horren arduradunak Jesus Mari Narvaez eta Esperanza Azkarraga senar-emazteak dira. Bikoteak, flysch beltzean egindako 40 urteko etengabeko lanean, 150 fosil inguru berreskuratatu ditu. Material fosil horiekin, mundu mailako garrantzia duen bilduma paleontologikoa osatu dute.

Nautilus Mutrikuko Interpretazio Geologiko Zentroa ezagutzeko



Amonite ikusgarriek osatzen dute Nautiluseko bilduma. MUTRIKUKO UDALA

bisita eskaintza zabalago dago uda sasoi honetan; bakarka zein taldeka ikus daiteke gunea, eta barne bisita gidatuak ere eskaintzen dituzte (www.mutriku.eus webgunean ikusgai dago informazio guztia).

Ikasitakoa hurbilgotik ezagutzen

Bestalde, Ikasgune Geologikoko esperientzia osatu nahi dutenek *Nautilus*, *flyscheko fosilak* bisita egiteko aukera ere badute. Geoparkeak antolatutako bisita gidatu horren baitan, lehenik, ikasgunea ezagutzen da eta, ondoren, aretoan ikusgai dauden fosilak

Munduan ezagutzen den amonite erraldoien bilduma handienetarikoa bat da

aurkitu zituzten itsaslabar basatiak ikusteko itsas irteera bat ere eskaintzen dute.

Mutrikuko portuan itsasontzia hartuta, aretoan ikasitakoa eta harkaitzetan dagoen ondare geologiko horren gako guztiak hurbilgotik ezagutzeko parada izango dute, hortaz, bisitariak. Saturran hondartzaraino joango dira, kostalde honetako flysch beltz berezia azaleratzen den lekura, hain zuzen, eta zazpi hondartzen gune ezkutu horretan hainbat sekretu ezagutzeko aukera izango dute. Inguru horretan berreskuratatu zituzten amonite erraldoiak zehazki non aurkitu zituzten erakustez gain, besteak beste, Bizkaiko Golkoa nola zabaldu zen ere azaldu ohi zaie bisitariei.

Nautilus, *flyscheko fosilak* bisita gidatuei buruzko informazio gehiagorako www.geoparkea.eus atarira jo daiteke.

AGENDA

DEBA

Uztailak 1	20:00	Hitzez Hitz Ikuskizuna	Musika, dantza, bertsoak	Zumardiko karpan
Uzt. 5, 12, 19, 26	19:00	"Marea gora" hitzaldi zikloa	Hitzaldiak	Kultur Elkartean
Uztailak 7	22:00	Bertso saioa: Oihane Perea, Miren Artetxe, Joanes Illarregi, Amets Arzallus	Bertsolaritza	Plaza Zaharrean
Uztailak 11	19:00	Ai Zapotxin! pailazoa	Ikuskizuna	Kultur Elkartean
Uztailak 14	22:00	"Begiradak"	Literatura, irudiak eta musika	Plaza Zaharrean
Uzt. 19-23		Deba Jazzez Blai festibala	Kontzertuak	Herriko txoko ezberdinetan
Uztailak 21	22:00	"Tonbola" antzerkia	Antzerkia	Plaza Zaharrean
Uztailak 28	22:00	Ghau	Kontzertua	Plaza Zaharrean
Abuztuak 6-10		Itziarko Kopraixak	Jaiak	Herri osoan zehar
Abuztuak 14-18		San Roke jaiak	Jaiak	Herri osoan zehar

EIBAR

Uztailak 2	10:30	Usartza txistulari banda	Kalejira	San Kristobal auzoan
Uztailak 4-5-6	4 eta 6: 22:30 Sean: 20:00	Ikus-entzunezkoen astea	Ikus-entzunezkoak	San Andres elizako klastroan
Uztailak 7	20:00	Zip trio	Kontzertua	Errebal Plazan
Uztailak 7	20:30	Eibarko Musika Banda	Kontzertua	Toribio Etxebarria kalean
Uztailak 7, 8, 9, 14		Amaña auzoko jaiak	Jaiak	Amaña auzoan
Uztailak 8-10		Lambretta Eibar XVII. Topaketa		
Uztailak 9	10:30	Usartza txistulari banda	Kalejira	Amaña auzoan
Abuztuak 3, 10, 18, 25	22:00	Zinema Kalean	Zinea	Untzagan
Abuztuak 15		Andra Mari jaiak	Jaiak	Azitain auzoan

ELGOIBAR

Uztailak 1-2		Idotorbeko Jaiak	Jaiak	Idotorben
Uztailak 7-9		Urazandiko jaiak	Jaiak	Urazandi auzoan
Uztailak 21	22:30	Nazioarteko Folklore Jaialdia	Dantza	Maalako parkean
Uztailak 22	22:30	'Ilunpetik argira' Verdini dantza taldea	Dokumentala / Dantza	Maalako parkean
Uztailak 28-29		Azkue auzoko jaiak	Jaiak	Azkue auzoan
Abuztuak 6	Goizean	Santumotz Eguna	Jaiak	Santumotz lautadan
Abuztuak 5		Sallobente Jaiak	Jaiak	Sallobente auzoan
Abuztuak 23-28		San Bartolome Jaiak	Jaiak	Herrian zehar

ERMUA

Ek. 30 eta uzt. 1	17:00-22:00/04:00	XV. Elektrojaia	Musika	Martxoaren 8a plazan eta Betiondon
Uztailak 5-9		Sallabente auzoko jaiak	Jaiak	Sallabente auzoan
Uztailak 14	23:00	Sir Aligator's Company	Kontzertua	Orbe Kardinalaren plazan
Uztailak 15	23:30	Merina Gris eta Nogen	Kontzertua	Orbe Kardinalaren plazan
Uztailak 16	19:30	Goazeneko kideekin karaokea	Musika	Orbe Kardinalaren plazan
Uztailak 16	20:30	Bertso jaialdia	Bertso saioa	Martxoaren 8a plazan
Uztailak 18	22:30	Nhil	Kontzertua	Martxoaren 8a plazan
Uztailak 22	23:30	Álvaro de Luna	Kontzertua	San Pelaio plazan
Uztailak 23	20:30	Anari	Kontzertua	Elizako arkupeetan
Uztailak 24-27		Santixau jaiak	Jaiak	Herriko txoko ezberdinetan

MALLABIA

Uztailak 1-2	Nesken frontenis txapelketa. Bikoteka eta banaka.	Kirol txapelketa	Herriko eta eskolako frontoietan
Abuztuak 14-16	Andra Mari jaiak	Jaiak	Herrian zehar
Abuztuaren 31n	San Erroman jaiak	Jaiak	Zengotita auzoan

MENDARO

Ekainak 30	19:00	Gararock parkean: Amorante, Bikustik eta The Brian Valeta movement	Kontzertua	Herriko Enparantzan
Uztailak 14, 15, 16		Garagardo azoka	Jaia	San Agustin kulturgunean
Uztailak 19		Jazz Eguna	Kontzertua	Herriko gune desberdinetan
Uztailak 22-26		Santana Jaiak	Jaiak	Herrian zehar
Abuztuak 15		Andra Mari Jaiak	Jaiak	Azpilgoetan

MUTRIKU

Uztailak 1	23:00	Mutrikuko Musika Banda	Kontzertua	Goiko plaza
Uztailak 8	23:00	Akordeoi taldea eta Madalen abesbatza	Kontzertua	Goiko plaza
Uztailak 15	23:00	Gure Ametsa dantza taldea	Dantza	Goiko plaza
Uztailak 21-25		Malen jaiak	Jaiak	Herrian zehar
Uztailak 22-24		Mater museo ontzia	Bisita	Portuan
Uztailak 28-31		Euskal Bateleroen eguna		
Uztailak 29	22:30	Mariachi Imperial	Kontzertua	Goiko plaza
Abuztuak 2, 9, 16	22:00	Aire libreko zinema	Zinema	Zabel plaza
Abuztuak 5	22:30	Mikel Urdangarin	Kontzertua	Goiko plaza

SORALUZE

Ekainak 28	19:00	Encarnación Bermúdez	Argazki erakusketa	Oreka Art Gallery
Uztailak 2	10:00	Moto Club Plaentxi	Moto topaketa	Herrian
Uztailak 16-18		San Andresko jaiak	Jaiak	San Andres auzoa
Uztailak 22-26		Soraluzeko jaiak	Jaiak	Herrian zehar
Abuztuak 15-17		Soraluzeko jaiak	Jaiak	Herrian zehar



DOLMENEN IBILBIDEA

BISITA GIDATUAK
 Uztailak 16, igandea (euskeraz)
 Uztailak 23, igandea (gaztelania)
 Abuztuak 17, osteguna (gaztelania)
 10:00etan Karakateko aparkalekuan

izen-ematea



657 794 677













Osma auzoan egunsentia zabaltzen.
Argazkilaria: Nacho del Rio.



**Eskerrik asko
Ermuan Bagaran
parte hartu
zenuten guztioi!!**

**Argazkiak:
Emilio Carral,
Maddi Goikoetxea eta
Artarrai Mendi Taldea.**





ERMUAN BAGARA LAGUNTZAILEAK

Anaitasuna Ikastola
 Eskolabari Ikastetxea
 Ongarai Eskola
 San Pelayo Ikastetxea
 San Lorentzo Ikastetxea
 Haurreskola
 Ermua BHI
 Antxixiketan Begirale Taldea
 Errotabari Eskubaloi Taldea
 Ermua CD
 Txindurri Txistu eta Dantza Taldea
 Ermuko Bertso Eskola

AEK Kaltxango Euskaltegia
 Eusliderrak
 Berbalagun
 Artarrai Mendi Taldea
 Ermuko Merkatari Elkarte
 Alboka Musika Eskola
 Extremadurako Zentroa
 Gaztela eta Leongo Zentroa
 Quetzal arropa-denda
 Izarbi arropa-denda
 Kokko arropa-denda
 Ermuko Tonbola Solidarioa
 Irazki Pintura Eskola
 Ermuko Gazte Asanblada
 Nushu

Ermuko CCOO
 Lobiano Gastronomía Elkarte
 Zukaldatu
 Urdinak Elkarte
 La Kolina Elkarte
 Arari Elkarte
 Eguzkialde Elkarte
 Malengo Elkarte
 Lurpe Elkarte
 Basarri Elkarte
 Eskilarapeko
 Euskal Birusa Elkarte Kulturala
 Ermuko Udaleko Kirol Saila
 Ermuko Udaleko Euskara Saila
 Ermuko Udala



Euskal Birusa Euskara Elkarteak bi musika saio antolatu ditu Santixau jaien barruan: Anari abeslari azkoitiarren kontzertua, eta Mar.Isk.Al de Jai disc-jockey zaldibartarraren saioa. Bai batak zein besteak euskarazko kantez gozatzeko aukera eskainiko dute.

kalean (Gadifot argazki-denda ohiaren inguruan). Adin guztietarako abestiak izango bertan entzungai, 19:30ean hasita, eta dantza egiteko aukera ere egongo da.

Bestalde, Anariaren kontzertua uztailaren 23an burutuko da, igandea, Santiago elizako arkupeetan 20:30ean hasita. Euskal musikaren eszenako ahots pertsonaletakoa da Anariarena, eta 30 urte beteko ditu laster eszenatoki gainean. 1996. urtean kaleratu zuen bere lehenengo diskoa, eta geroztik beste lau kale-ratu ditu. Ermuan bakarka arituko da, egungo eta aspaldiko kantak gogora ekarriz.

Euskal Birusa Euskara Elkarteak antolatu ditu bi kontzertu hauek, Ermuako Udalaren Kultura Sailaren babesarekin.

Anari eta Mar.Isk.Al de Jai musikariak arituko dira Ermuan

Testua **DORLETA VIDAL**

Gainean dira Santixau Jaiak, eta jadanik prest dagoen egitarau zabalean bi musikariren saioak nabarmentzen dira: Anari abes-

lariarena eta Mar.Isk.Al de Jai disc-jockeyarena. Azken honek uztailaren 15ean, larunbata, eskainiko du bere musika saioa Komentukua

CITROËN
AUTOS AMEDI

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
Telefona 943 17 04 14

MEDITERRÁNEA
VINTAGE STORE

Arapa eta asagarriak

Orbe Kardinala plaza 6
Ermua, Bizkaia

678 359 337

mediterranea_vintage

Bitsi-denda Tailer piroa Erloji-denda

Senén
1978

Diseinuak eta kalitateak bereizten gaituzte

San Pelayo zeharibidea 4 ERMUA (48260) BIZKAIA
www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com

hanigan's
Irish tavern

Gosari, bazkeri eta afariak eramateko prestatzen dugu

Astegunetan 7:00etatik zabalik
Asteburuetan 10:00etatik.

Komentukua z/g - 94303027

FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOAK
INPRIMAKETAK KAMISETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

TXALAPARTA
ABERNA

Eta asteburuetan pintxoak, afariak eta bokatak!

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo ondoak.
- Fritoak: urdalazpikoa edo ondoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Erdikokale 13 (Ermua) **ENKARGUAK 943 030 299**



ARITZ ABENDIBAR · Herri kirolaria

"Zelaik egin zuen bezala, harrian aro bat markatu nahiko nuke"

Duela bospasei hilabete ekin zion harria altxatzeari Aritz Abendibar mallabitar gazteak, eta maiatzean debutatu zuen. Bola da gehien gustatzen zaion harria, baina teknika lantzen dihardu beste harri motekin eta pisuekin aritu ahal izateko.

Testua **DORLETA VIDAL**

Zerkerakari zintuen herri kiroletik?

Jon Gisasola "Zelai V.a" egunkari batean ikusi nuen, eta kuriositatea piztu zitzaidan. Zelaitarren baserria guretik oso gertu dagoenez, harria altxatzen probatzea bururatu zitzaidan. Harri txikiarekin probatu nuen, eta asko gustatu zitzaidan.

Zenbat pisu altxatzen duzu?

Gaur egun 55 kiloko bolarekin eta 63 kiloko zilindroarekin ari naiz. Haien artean, bola da gehien gustatzen zaidana, errazago delako:

ondo hartuz gero, ez dizu ihes egingiten, eta seguruago sentitzen naiz. Hemendik aurrera pisu gehiago hartzen joango naiz, eta gero harri kubikoa ere etorriko da.

Zenbat entrenatzen duzu?

Astean behin edo birritan joaten saiatzen naiz, bestela indarra galtzen da! Hala ere, indarrak baino, teknikak dauka garrantzi handiagoa, eta praktikatu egin behar da.

Zelaitarrekin aritzen zara?

Bai, normalean Jonekin entrena-

tzen dut, baina Karmele eta Ioritz Gisasola ere bertan egoten dira, entrenatzen. Oso gustura nago: harri eta irakasle onenak ditut! Gainera, "Zelai" nagusia ez da beti egoten, baina datorrenean oso aholku onak ematen dizkit. Esperientzia handia dauka eta asko daki: harria nola etzan, nola jo...

Zer nolako garrantzia dauka teknikak?

Itzela! Pertsona askok altxatu ditzakete harriak indarraz bakarrik baliatuz, baina teknika ona behar da polita izateko. Nik nahiago dut bost bider ondo altxatzea, hamar txarto baino.

Duela gutxi debutatu zenuen...

Bai, maiatzaren 27an erakustaldia egin nuen Mallabian bertan. Tran-kil egon nintzen, eta esperientzia polita izan zen.

Lotura berezia dauka Mallabiak herri kirolarekin?

Bai, azken urteotan *bajaturuta* egon da, baina afizio handia egon da betidanik, eta beti egongo da.

Harri-jasotzaileen artean, bat aipatu beharko bazenu...

Harri-jasotzaile on asko egon dira: Iñaki Perurena, Aimar Irigoien, Mieltxo Sarelegi..., baina niretzat onena "Zelai" nagusia izan zen. Gurasoek, osabak, aititek... denek esaten dute onena izan zela, eta harriaren munduan epoka bat markatu zuen.

Zure adineko herri kirolaririk eza-gutzen duzu?

Hemen inguruan ez, Gipuzkoan daude guztiak. Gaur egun, gainera, neska asko daude, modan dago.

Nola ikusten duzu zure burua hemendik hamar urtera?

Euskal Herriko Harri Txikien Txapelketa irabaztea gustatuko litzaidake baina, batez ere, harrian aro bat markatu nahiko nuke, "Zelai" k egin zuen bezala. Harro sentituko nintzateke.

Automozioiko 2. mailako ikasleek burututako proiektua: Senda eta enduro motozikletak berriztea



22/23 ikasturtean, ibilgailuen elektromekanikako mantentze-lanetako 2. mailako ikasleek bi motozikleta mota berriztu dituzte: Derbi Senda bat eta enduroko motor bat. Horretarako, kalteak aztertu eta baloratu behar izan dituzte, desmuntatu, plastikozko elementuak eta sistema elektrikoa konpondu, hondatutako elementuak ordezkatu, margotu eta, azken berrikuspenera egin ostean, martxan jarri. Proiektu tekniko guztietan bezala, txostena idatzi eta azalpenak eman dizkiete beste ikaskideei eta irakasleei, egindako prozesua azaltzeko.

Ile-apainketako 2. mailako ikasleek burututako proiektua: Ezpain-baltsamo begano bat sortzea

Ile-apainketako 2. mailako taldeak ezpainetako baltsamo bat egin du, %100 naturala eta beganoa, ezpain lehorrak eta zartatuak tratatzeko. Gaur egun, kosmetika naturala goraka doan negozioa da, ingurumenarekiko eta pertsonen osasunarekiko duen iraunkortasunagatik. Beraz, produktu hau modan dago, osagaien osakeran ez baitu animalien gandik eratorritako osagairik edota substantziarik erabiltzen, ezta petroliotik eratorritakorik ere, kaltegarriak direlako. Hura sortzeko errezeta espezifiko bat erabili dute, eta beharrezko osagai eta material guztiak erosi dituzte. Behin eginda, salmenta sustatzeko publizitate-kanpaina bat simulatu dute.



Mekanizazioiko 1. mailako ikasleek burututako proiektua: Gabonetako zuhaitza egitea

Aurten ere, 1. mailako taldeak proiektu komunitario bat garatu du, zeharkako proiektua hain zuzen ere. Izan ere, elementu metalikoen fabrikazioko 1. mailan irakasten diren lau lanbide-moduluak landu dituzte faseka: fabrikazio mekanikoa, galdaragintza, aluminiozko arotzeria, eta hiru soldadura mota: zuhaitzaren oinarriko eta izarrerako elektrodo estalia, zuhaitzaren adarretarako soldadura erdiautomatikoa, eta aluminiozko euskarrietarako TIG soldadura.

Infreñu Taberna

Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com

uriarte asesores ✓

Aholkularitza fiskala
eta lege aholkularitza

Komentukoa 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxe 943 179 197
48260 · Ermua · Bizkaia

Herreroneko dantza-saloia eta txarkuterixia



Plazatik da etxiaren sarrera nagusixa, baina beheko lokalera Erdikokaletik sartzen da. Baldespina Markesei erosi jakuen 1925an eta tabernia, txarkuterixia eta dantza-saloia izan da. Bertako alaba Juanita Solozabalek pianuan bailabliak jotzen zitxuan eta gramolia be jartzen zeben, diskuekin. "Ekarri jonat disko barrixa eta etorri!". Hori entzuteko desiatzen egoten ziran dantza zalienak eta domeka arratsaldia bertan emoten zeben: saloiko mahaixen bueltan gurasuak, kafia hartzen eta gaztiak dantzan, gaseosia edanda. Casa Herrero izenakin emon zan ezagutzera txarkuterixia: txarrixak plaza osteko Zerkan zeken almagenian hiltzen zitxuezen astero-astero, kurrixka baten. Ermutik kanpora be entzute haundikuak egin ziran Herreroneko txorizuak. Juanitak, honen Luis Mari eta Fernando Izagirre semiak eta 1969tik aurrera, Mari Carmen Mugika Fernandon alargunak jardun dabe bertan. 2010ian Igor Astarloak Gozo-gozo okindegixa zabaldu zeban bertan. Herrero izena ez daki famelixiak nundik datorren. Idatzizko iturrixen arabera, 1775 urtian Ermuan hamabost errementari-sutegi zeuzen, armagintzarako osagaiak eitzen ziharduenak. Euretako bat ete zan?



Enter
INFORMÁTICA

SALMENTAK
IRAKASKUNTZA
ZERBITZU TEKNIKOKA

VI. Mendeurrena 19, behea
943 17 90 37
enter@informaticaenter.com

KARABIXA

KARABIXA KAFETEGIA

Egunero zabalik
08:30etik aurrera

Proba-Leku
Neapaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel.
943170542



AITZOL LEJARDI VALLEJO
ETXEBIZITZA SINDIKATU SOZIALISTAKO KIDEA

Hemen da Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatu Sozialista

Ekainaren 10ean Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatu Sozialista aurkeztu genuen Bilbon. Pasa den urtetik martxan dabilen Deba bailarako Etxebizitza Sindikatua horren barnean kokatzen da. Izan ere, azken urte hauetan zehar hainbat etxebizitza sindikatu sortu dira Mugimendu Sozialistaren baitan Euskal Herrian, eta Etxebizitza Sindikatu Sozialistaren aurkezpena maila lokaletik antolakuntza nazionalera pasatzeko beharraren isla da.

Bilbon egindako aurkezpena ez da marka berri baten aurkezpen soila, doako etxebizitza duin eta unibertsalaren aldeko proposamen politiko oso bat baizik. Alderdi parlamentarioen esanetan, etxegabetzeak iraganeko kontuak dira, baina, azken hilabeteen Erandion, Hernanin eta beste hainbat lekutan eman diren etxegabetzeek errealitate gordina zein den erakutsi dute. Etxegabetzeek gain, etxebizitzaren arazoa larrituz doa: alokairuen prezioa maximo historikoetan dago EAEn, 3.000 etxebizitzatik gora daude hutsik Nafarroan, etxebizitzaren ia % 30 luxuzko etxebizitza da Ipar Euskal Herrian, 700 etxegabetzetik gora izan ziren EAEn 2022an, 3.600 lagun inguru bizi dira kale gorrian Euskal Herrian eta etxebizitzaren bahitura kasuek ugaritzen jarraitzen dute.

Proletalgoaren bizi bitartekoak garestitzen ari diren honetan, oinarrizko bizi bitartekoetara iristen ez direnen kopurua gero eta handiagoa da. Etxebizitza eskubidea sistematikoki ukatu zaio proletalgoari.

Honen aurrean, Etxebizitza Sindikatu Sozialistatik antolakuntzarako deia luzatzen dugu. Kalitatezkoa, doakoa eta unibertsala izango den etxebizitzaren alde, Estatu Sozialista eraiki. Edozein kasutan gurekin harremanetan jarri nahi izanez gero, kontaktatu esindikatu.a.debabailara@gmail.com helbidearen edo 671 19 59 24 zenbakiaren bidez.

**“Etxebizitza
eskubidea
sistematikoki
ukatu zaio
proletalgoari”**

LUIS MARIA LÓPEZ

Ermuko eskola publikoetako atezaina, 52 urte ditu eta betidanik bizi izan da Ermuan. Bidaiazale amorratua, berrogei herrialde baino gehiagotan egon da. Bisitatzeko dituenen artean, India.

Testua **NAHIA RUIZ ALBIZURI**

Nola gogoratzen duzu zure haurtzaroa?

San Lorenzokoa naiz eta haurtzaroa alaia gogoratzen dut. 70. hamarkada bukaerako garaia zen, Eitzaga eta mendia jolasteko zeudenean, Serrerria eta Precicontrol zeudeneko garaia. Kaleko haurtzaroa izan zen, lagunekin gozatutakoa, nahiko basatia.

Eta gaztaroa?

Gaztaroa ere sasoi ona izan zen. Ermua pil-pilean zegoen: jendez gainezka eta beti festa zegoeneko. Elgoibarko garaia ere izan nuen. Garaiko gazteen antzerakoa.

Zer irakatsi dizute gurasoek?

Irakatsi didate nahikoa emanda nahi dudana guztia lortzen. Ez didate nahi izan dudana guztia eman, behar nuena baizik. Hortik nik lortu dut nahi izandakoa.

Umetan zer izan nahi zenuen?

Ez dakit oso ondo. Uste dut etorkizunak ez ninduela asko arduratzen. Txikitanean unekoak arduratzen ninduen. Horretaz gain, ez zen gaur

egun bezala, non mundura askoz ere irekiagoak gauden eta informazio gehiago dugun.

Ikasteko aukerarik izan zenuen?

Bai. OHO ikasi nuen eta zortzi urtetan bost ikastetxe ezberdinetan egon nintzen Ermuan: Portal 68n, Correos zaharrean, Santa Anan, Teresa Murgan eta San Lorenzo eskolan. San Lorenzo eskolan 8. ikasturtea egin nuen, eta eskolaren lehenengo urtea izan zen. Gero elektrizitatea ikasi nuen Armeria Eskolan.

Nun egiten duzu lan?

Udalan egiten dut lan, eskola publikoetako atezain bezala, eta 15 urte daramatzat horretan.

Zer da lan horretan gehien gustatzen zaizuna?

Jendarekin harremana izatea, bai nagusiekin eta baita ikasleekin ere. Nire lanaren testuinguruan, irakasleek asko eskatzen dute eta umeek ondo pasatu baino ez dute nahi. Bi zati horiek elkarrekin egotea da gehien gustatzen zaidana.



Aisialdian zer egitea gustatzen zaizu?

Askotan joaten naiz zinera, asko gustatzen zait. Bidaiatzea ere gogoko dut, eta 40 herrialde baino gehiagotan egon naiz.

Zein da gehien gustatu zaizun he-

SEHIGA
PROTECCIÓN LABORAL
LABORAL BAZER-BAKO
ORNIDURA

Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

ZERMİK
SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMİK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoa garatzen espezializatua dagoen ingeniaritza-enpresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

www.zermik.com
Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

SAN PELAYO
Zuri egokitzen den odontologia
La odontología que se adapta a ti

Dra. OLATZ GARCÍA ARREGUI
Programa
Ayuda Dental
Infantil
Gobernador Vitoria

943 17 04 04
info@clinicasantipelayo.com
San Pelayo Zeharkalea 5
48100 Ermua (Bizkaia)

rrialdea?

Segun eta zeri erreparatzen diodan. Sentimenduei erreparatuta, Brasil aipatuko nuke, non hiru urtez egon nintzen bizitzen. Lagun asko ditut oraindik bertan, eta harremanetan jarraitzen dugu. Bestalde, kulturaren arabera bidaiatzen dut askotan, eta herrialdeen kultura kontuan

“Zortzi urtetan bost ikastetxe ezberdinetan egon nintzen. Gero, elektrizitatea ikasi nuen Armerian”

“Nire bizitzako parte direnei eskatzen diet leialak eta eskuzabalak izatea, nire buruari eskatzen diodan berdina”

hartuta, adibidez, Guatemala nabarmenduko nuke. Paisaiari erreparatuko banu, Txile, esaterako.

Nora joango zinateke?

Indiara joan nahi dut, espiritualitatearengatik. Bertako erlijioa eta espiritualitate hori nola bizi duten ikustea gustatuko litzaidake. Gainera trenez bidaiatzea gustatzen zait, eta bertan horretarako aukera asko dago.

Kirolik praktikatzen duzu?

Ibiltzea. Ibilbide luzeak egitea gustatzen zait, eta hainbat bider egon naiz Donejakue bidean udan. Eguna eta egunak ematen ditut ibiltzen.

“Brasilera bizitzera joatea erabaki zaila izan zen: dena alde batera utzi eta ezezagunera bidaiatzea”

Zer eskatzen diozu lagun bati?

Leiala izatea. Baina ez diet lagunei bakarrik eskatzen, baizik eta nire bizitzako parte diren guztiei ere: leialak eta eskuzabalak izatea. Nire buruari eskatzen dizkiodan gauza berdinak.

Zure bizitzako egunik zorionsuenaren zein da?

Uste dut etortze dagoela, oraindik ez da gertatu.

Zein da hartu duzun erabakirik zailena?

Brasilera bizitzera joatea. Aukera suertatu zitzaidan kontratu finkoa neukan lanean, eta dena alde batera utzi eta ezezagunera bidaiatzea aukeratu nuen. Ez nekien gauzak nola joango ziren ezta zer topatuko nuen, nahiz eta azkenean ondo joan zen. Momentuan ez dakizu zer nolako esperientzia izango den, ezta etortzen zarenean zer izango duzun hemen zain.

Berriro jaioko bazina?

Berriro jaioko banintz, XVI. mendeko Italian jaiotzea gustatuko litzaidake, Errenazimendu garaian zehazki.


OSASUNA • ESTETIKA
EDERTASUNA

Marfil

Goienkale 12 *Ilargi-eguneko bat baino gehiago!!*

943 17 28 09

Egokitutako burua garbitzeko konketa



Probaleku z/g (ERMUA)
Pintxoak
Razioak
Kaxolak
Plater konbinatuak
Ogitartekoak
699 292 043
636 549 154

Udal Euskaltegia

Teresa Murga Eraikina
Goienkale z/g 2. solairua
ERMUA · 943 170 925
ermukoudaleuskaltegia@gmail.com

LEIRE MAYORA
PODOLOGOA

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
943 17 47 44

NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA

San Inazio 4 - Ermua
943 030 512 / nikinika@gmail.com

1953

E R M U A

Jon Idigoras abade egin zeneko elizkizunaren ostean lagunekin ertratatu zen Pasialekun. Uztailaren 4 hartan eman zuen bere lehen meza eta ofizio berean bere bi lobatxok lehen jaunartzea egin zuten. Ezkerretik eskumara tente Santos Totorika, Jon Idigoras, Agustin Izagirre eta Manolo Valdubieco. Makurtuta Agustin Aranberria, Jesus Arrizabala eta Santi Onandia.



1960

M A L L A B I A

Argazki hau 1960-1961 urtekoa da eta Osmako ermitako jaietan aterata dago. Bertan agertzen dira, besteak beste: Sabin Olalde, Miguel Angel Olalde, Dorotea Arrate, Beatriz Astarloa Arrate, Benanzio Garitagoitia edo Mateo Amesti, Jose Urrutxurto, Saturnino Gorrotxategi...

Ezin izan dugu argitu ezkerrean zutik dagoena Benanzio Garitagoitia edo Mateo Amesti den. Baten batek erantzuna badaki, drogeten@gmail.com helbidera mezua bidali dezala.



IRAGARKI LABURRAK

Haurrak zaintzeko neska eskaintzen da, esperientziaduna eta Haur Hezkuntzan graduatua.
☎ 685584587

Matematikako, fisikako eta kimikako klase partikularrak eskaintzen dira DBHn dauden ikasleentzat ☎ 688 68 36 55.

EHUko fisikako ikasleak eskola partikularrak ematen ditu: DBHko Matematika, Fisika eta Kimika ☎ 626514969

Pintura/eskultura estudioa konpartitzeko pertsona bat bilatzen ari gara. Ermuko Komentukua kalean
☎ 688695331



Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezu elektronikoa helbide honetara: drogeten@gmail.com
Azken eguna: **Uztailaren 14a**.



Ekainaren 19an
Zorionak **Aunitz**
etxeko guztion partez.
Musu handi bat!



Ekainaren 29an
Zorionak **Carla**!! Aita,
ama eta Emmaren partez!
Maite zaitugu!!



Uztailaren 6an
Zorionak **Oinatz** zure
lehenengo urtebe-
tetzean, bihurritxo!
Heldu zinenetik
pozarren gaude denok
etxean. Eta zorionak
zuri ere izeko **Marijai**
(uztailaren 10ean)!
Musu goxo bat familia
osoaren partez

ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...
...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

HARATEGIA - URDAITEGIA
MIGUEL
BERTAKO OKELAK ETXEREN EGINDAKO
TXORIZO
TXISTORRA
ODOLOSTE
ETA
KROKETAK
PROBLEKU 3 - 943 170563
ERMUA

Komunitateak

San Pelayo

Aholkularitza
juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua



CAPRI
PIZZERIA
943 03 33 15



Luis Cañas
Amaren
Cair
Ehun
Txakoli Astobiza
Pazo Señorans
Cava Oriol Rossell

Cair
Casar de Burbia
Bodegas Valdemar
García de Olano
Manzanos Wines
Pemord Ricard Wines
Faustino García Martínez.



nitida

T.943176075

aral@aral97.com | Pol.Goitondo-Goihoa, Parc.7 - Pob.1 | 48269 Mallabia (Bizkaia)



ITURGINTZA
KONPONKETAK

Marques de Valdespina 16
ERMUA
605 71 10 81 / 688 71 27 10

Uztailaren 14a - Ostirala

19:00 Plazan, TXARANGEN JOLASak: pepino eta triatloia.
23:00 Plazan, Sir Aligator's Company taldearen KONZERTUA.

Uztailaren 15a - Larunbata

10:00 Plazako pilotalekuan, ARKUTIRO PROBA. Nahien guztiak parte hartu ahal izango du.
10:00-21:30 Aritzemendi pilotalekuan, I. TXAKURREN ERAKUSKETA ETA PAELLA SOLIDARIOA, SLC6A1 Spain elkartearen mesedetan.
11:00 Plazan, ALDIBEREKO ETA XAKE AZKAR PARTIDEN ERAKUSTALDIA.
19:30 Komentukua kalean, DJ FESTA Mar.isk.a.l. Dejaiarekin.
23:30 Plazan, Merina Gris + Nogen taldeen KONZERTUA.

Uztailaren 16a - Igandea

10:30 Plazan HERRI ARTEKO XXVI. XAKE TXAPELKETA.
12:00 San Pelaioko Bolatokian, BOLOPALMA TXAPELKETA Campoo de Yuso emakume taldearekin eta Ermuko Peña Bolística Montañesarekin.
19:30 Plazan, GOAZEN KARRAOKEA telesailako hiru kiderekin.

20:30 Martxoaren 8a plazan, BERTSO JAIALDIA.

Uztailaren 17a - Astelehena

18:30 San Pelaioko kantxetan, SANTIXAUKO V. PADEL TXAPELKETA.
19:00 Plazan, TXARANGEN JOLASAK: harra eta soka-tira.
22:30 Martxoaren 8a plazan, Orlis Pineda abeslari kubatarren KONZERTUA.

Uztailaren 18a - Asteartea

18:30 San Pelaion, V. PADEL TXAPELKETA.
19:00 Plazan, TXARANGEN JOLASAK: pringue eta jatorrizko bekatua.
22:30 Martxoaren 8a plazan, Nhil taldearen KONZERTUA.

Uztailaren 19a - Asteazkena

18:30 San Pelaion, V. PADEL TXAPELKETA.
19:00 Plazan, TXARANGEN JOLASAK: soka-tira finala eta kuboen proba.
21:00 Plazan HERRI OGITARTEKADA.
22:30 Plazan, TXARANGEN ABESTI LEHIAKETA. Lehiaketatik kanpo, Irulitxa txaranga.

Uztailaren 20a - Osteguna

Umeen Eguna
11:00 Plazan, UMEENTZA-

KO TXUPINAZOa koloretako hautsarekin.

11:15 Plazan, BURUHANDIAK

11:30-13:30 eta **16:00-19:00** Plazan, UMEENTZAKO UR PARKEA eta TAILERRAK.

16:00 Plazan, BURUHANDIAK.

17:30 Plazan, UMEENTZAKO TXOKOLATE-JANA.

18:30 San Pelaion, V. PADEL TXAPELKETA.

19:00 Plazan "Gora bihotzak" UMEENTZAKO MUSIKA-IKUSKIZUNA, Eidabe taldearen eskutik.

20:30 Plazan, APAR JAI.

22:00-01:00 Martxoaren 8a plazan, FESTAN BLAI Javier Lázaro DJarekin.

Uztailaren 21a - Ostirala

18:00 Plazako pilotalekuan, PALETA TXAPELKETAREN FINALA.

18:30 San Pelaion, V. PADEL TXAPELKETAREN partidak.

22:30 Plazan, PLAYBACK LEHIAKETA.

Uztailaren 22a - Larunbata

9:00 Mallabiko Pedro Deunaren zelaian, TXAKURREN ERAKUSTALDI LEHIAKETA.

9:00 Kiroldegian, Santixaue-tako FUTBITO TXAPELKETA.

9:00 San Pelaion, PADEL TXAPELKETAREN partidak.

22:30 Plazan, URKO 69etan ezetz! XII. IGOERA KONTROLATUA.

16:30 Plazan, MUS TXAPELKETA.

19:00 Plazan, DANTZA EMANALDIA, Txindurri taldearen eskutik.

23:30 San Pelaion, Álvaro de Luna abeslariaren KONZERTUA.

Uztailaren 23a - Igandea

10:00 San Pelaion, V. PADEL TXAPELKETAREN partidak.

19:00 Plazan, MUSIKA ETA DANTZA JAIALDIA: Fundación Integración Otrora (Kolonbia) eta Crane Performers (Uganda).

20:30 Santiago elizaren aterpeetan, Anari abeslariaren KONZERTUA.

BESTELAKOAK

Ekainaren 30ean:

17:00-22:00 Martxoaren 8a plazan, Elektrojaiaren aurre-jaialdia

Uztailaren 1ean:

17:00-04:00 Betiondon, Elektrojaia.

Uztailaren 5etik 9ra:

Sallabente auzoko jaiak: hainbat ekintza.

Patxi López



**TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko**



URRETA burdindenda

- * Etxea
- * Tresneria
- * Brikolajea
- * Errealak
- * Giltzak
- * Sarrailagintza
- * Kit altzarriak

Zeharbatea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

Iberikoetan
espezialistak

Mayte

VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412

PRO
arraindegia




**ITSASKIAK
ARRAIN FRESKOAK
ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21
943 17 16 96
ERMUA

GREMIOEN

GIDA



ITURGINTZA
ITURGINTZA, GAS ETA KALEFAKZIOA
LUIS VALLE
**Bainugelen erakusketa**
943 17 15 56
Tailerra
943 17 23 56
Goienkale z/g

PERTSIANAK
**ORBE**
TOLDOS Y PERSIANAS
- Toldoak
- Ostalaritzarako muntaiak
- Pertsianak
- Instalakuntzak eta konponketak
- Motorizazioa
- Manparak
- Segurtasun pertsianak
- Pertsiana dekoratiboak
- Estoreak
- Eltxo-sareak
Tailerra:
Zearreko Buelta 2
943 17 66 34 - 630 01 13 41
48260 Ermua (Bizkaia)
Erakusketa: Karabixa 1
48260 Ermua (Bizkaia)
943 17 98 60
persianasorbe@gmail.com

ERROTULAZIOA
ROTEK
R Ó T U L O S
Argi errotuloak · 3D letrak · Ibilgailuak
Erakustokiak eta azokak · Formato handiak
Publizitate kanpainak · Led pantailak
943 17 00 36
www.rotekrotulos.com
ROTEK
LED PANTAILAK

ETXETRESNAK
**Egaña**
ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA
Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

ITURGINTZA
ITURGINTZA - GASA - BEROKUNTZA
**PALACIOS SM**
ENPRESA INSTALATZAILE BAIMENDUA
GREMIOEN KUDEAKETA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
San Pelayo 26, behea · Ermua (Bizkaia)
info@palaciosfontaneria.com
www.palaciosfontaneria.com
660 72 95 03 · 659 75 74 59 · 943 53 92 23

ELEKTRIZITATEA
**ELECTRICIDAD**
BETA^{CB}
ARGIZTAPENA
ELEKTRIZITATEA
· Proiektuak
· Instalazioak
· Erreformak
· Berokuntza
· Gaueko tarifa
· Erradiadore elektrikoak
Diputazioa 11, behea
ERMUA
943 17 65 25
656 70 23 60

Gremioen Gidan publizitatea jarri nahi baduzu...
943 17 93 50 / 688 63 28 76 / drogeten@gmail.com

Ermuko Udal Euskaltegia



2023-24 IKASTURTEA

EUSKARA IKASTAROAK

Matrikula zabalik **IRAILAREN 4TIK AURRERA**

UDA ONA IZAN!!!

**Animatu
eta etorri!!
Zuen zain
egongo gara!!**

Teresa Murga Eraikina – Goienkale, 4-3. Solairua – 48260-ERMUA
Tfnoa.: 943170925
euskaltegia@udalermua.net
<https://www.ermua.eus/es/euskera>